EGUNA

JEL

Lgo. urtia | 45'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsaila 21'gna. larunbata | 15 eunen

Etzi 99 urte

Espartero'k gure diputaziñoak españarretan biurtu ebazan.

Gogoratu euzkotarra!

Erririk nagusienak alkartu?

Zein asmo darabille?

Rusia eta Inglaterra

Itxasoa bide dala jardun luzeak egin ditue

BALD WIN

Stalin

ARTUEMONETAN RUSIA TA INGELATEŔA

Mosku.—Lateŕi arteko artuemonetan eŕi ordezkari dan Krestinski'k lord Chilston Ingelateŕa'ko ordezkariakin baŕiketaldi luzea egin dau. Itxaso artuemonetan Ingelateŕa eta Rusia egiune bat egiteko asmuetan ei dabiltz ta orixe izan da baŕiketaldi oŕetan izan daben autua ausago.

ZORAKERI ANDIA

"Eriotza - Batza"ko ogetazortzi bazkidek euren buruak kaleerdian il ditue

Japón'go gobernuaren aurkako asarrez?

Tokio.—"Eriotza Batza"ko 28 bazkidek uriburuko tokirik agirienetan banandu ta euren buruak il dabez. Aŕigaŕi izan yakoe ikusgaŕi ori japondaŕei.

Eta ordu batean il ebezan euren buruak ogeitazortzirok.

Japon'go Gobernua'k Japon kalte jokatzen daualako il ei dabez euron buruok.

Japon'go gudalburuan artean sortuta'oa da "Eriotza-Batza" ori. Txina lenbailen menderatzea nai dabe. Guda gertakizunetarako dirurik inguratu ezin ebelako, pofot egin ei eban Gobernua'k. Lafalde goseoi bete nai ez ba dau, Gobernua'ren aurka jagiko dira.

Ongarri? Kaltegarri?

Gaurtik, kontrola asi dabe europar erriak España'ra eta Euzkadi'ra bialdu leikezan gayetan

Ez sartzeko batzordiak erabagita daben legez, gaurtik aurera España'ra ta Euzkadi'ra bialtzen diran gayen kontrola egingo dabe europaŕ eŕiak.

Eta datoŕen ilean asiko dira blokeo dalakoa egiten.

Makalak andien aurka

India'k azkatasuna gura dau

Azkatasuna errien bizi-bidea da ta emon egin biar yake

Ingelesak iñundiko alegiñak egiten diardue, azkatasun gogo ori itzalduteko

Zegaitik Inglaterrak 320 milloe inditar bere buztarripean euki nai?

Nueva Delhy (India).—Azkenengo auteskunde edo eleziñuetan indiaŕalderdiak atara dira nagusi. 141 aldunen artean 88 indiaŕalderdiak daukez.

Inglateŕa'k iñundiko alegiñak egiten dauz indiaŕ oŕeik euron buru-jabetasuna lortu ez dagien eta Inglateŕa'ren azpitik urten ez dagien. Al dauzan gudariak bialtzen dauz indiataŕei menpean eusteko. 320 miloj indiaŕ bere buztaŕipean euki nai dauz. Zergaltik baiña? Indiaŕok aurrepenez ornitzeko ala lapuŕetan jaraitzeko? Azpikeriz ta arpegi onez ezer egin ezin dabenean agertzen dira ingelateŕaŕok nor diran.



"Le Temps" jardunean

Alemani'n asarreka biurtzen eztiran gudariak dirata-ta

ALEMAN ERIA, ASARE

Paris. — España'ko auziaz deragoio "Le Temps" egunkariak, "Daily Herald,"etik artutako lefo oneik argitaltzen ditu.

Dusseldorf'eko kalietan oyu eta didar auxe entzun da: "España'n dagozan gure semiak itzuli egiguzuez!".

Jende piiu bildu da, oyu laŕi ta diadar gogoŕik areago izan da, ta gero, polizi-gizonak eldu eta zirti-zarta ari dira. Jendea ara ona baŕeiatu ta makabanatu da, ta atxilotuak ugari izan dira.

Izpaŕ ori ondo dakian batenganik aldu yaku eta ziurtzat etsi dogu, egidean be. Izpaŕ emolea, ganera, ez da ez komunista, sozialista judar ez paxismo-arerio.

Uri geyagotan be, zapaŕada ortaŕikorik izan dala, diñoe ta Munich eta Berlin'en bertan be.

Egia egia dana, eta bayeztua izan dot bat baño geyagogandik, auxe be bada. Españaŕ naste ortan sartzeaz Alemani'ko eŕiak min andia artu duala.

Beste zerbait be bai aintzat artzekoa. Iradan lau urte onetan Hitler gizon gurenaren kontrako itz gordiñik ez da entzun oráintxe arte.

Agindariak erabili dituen alegiñak gorabera, España'n aleman aberkideŕik asko il izan yakala jakin dau eŕiak. Gefa ortan, ganera, alemanak diñoenez euren abeŕiak ez dau ezer galtzeko aŕiskurik izan.

Senideei onelaxen adirezi oi dautse il baŕia. "Zuen semea alako maniobretan il da". Ta oar auxe gero: ez egitue lutorik laŕi. Eta besterik ezer ez, ez nun, ez noiz, ez zelan il zanik.

Izpaŕingi beretik onela dafal, ufengo.

España'ra boluntarioak bialtzea galaziteko lenengo eskatu ebana, Mussolini izan da. Galerazopen ori, ganera, allk lasteren ezaŕi bjaŕ dala, geitu dau.

Bañan galerazpen oŕen ezaŕte-eguna izentautekoan, Mussolini'k ez dau iradurik izan. España'ra, aŕtietan gudariak ugari bialduteko erantzuna atzeratuten alegindu izan da, Alemania'z batean.

Gudari pila oŕek ez dautse, nunbait Queipo de Llano'ri laguntasun aundirik egingo, bañan italiaŕen asmo biuŕiak azalduteko alagalakoa da.

Otsanak lapurren aurka

Abisinitarrak Graziani generala il gura izan dabe

ABEŔI-MIÑA?

Roma. — Addis-Abbeba'tik artu dan izpaŕ batek diño mariscal Graziani'ren aurka bera erailtzeko jokatu dirala. Bere arerijuak eskuzko bonbak erabili ei-zituen Graziani mariskalak zauri batzuk bai ebazan, zaurijok gaŕantzi bakuak. Ostera Liota gudalburuba, txaŕto be, txaŕto ei-dago.

Au, ori ta beste

Ingelesen izkillu geitutiak matraka ugari beste errien artian. - Erri gustiak asiko ete dira, jo ta su, izkilluz orniduten? -

JAPON ETA INGELESAK

Tokio. — Ingelesen izkilu geitutiak zer esan ugari sortu dau.

Japon'go agintarien ustez Inglateŕa'ren erabagi au Reich'go gobernuaren izkilu geitutiari erantzutiaŕen da.

Japondaŕen ustez eŕi gustiak asiko dira euren izkiluak geituten.

Amerikétako Lateŕi Batuak be Inglateŕa'gaz bardindu gurako dabe.

Japon txaŕto geratzen da beste ainbesterik egin barik eta bestiak aŕtu daben bidia aŕtuko dabela uste da.

KOIPE BAŔITSUARI ¡¡OMENA!!

Bayona. — Paxisten iŕat emokiak eurak "general locutor" esaten dautsoen Queipo de Llano'ri omenen bat egiteko asmoa dabe.

Omen oŕetan Portugal'go iŕat emokiak be, parteko doguz.

"Album" aundiren bat okañitea erabagi dabe. "Album" oŕetan eskintza ta aundi esteak egingo dautsez.

Omen oŕetan geu euzkotaŕak, be, pozik parte aŕtuko genduke. Baiña aldi onetan zer eskiñi? Ardao apuŕ bat bai-gendu...

PAXISTEN AZPIKERIAK

Fez. — Uri onetan paxisten azpikeriak agertu egin dira.

Uri onetatik arabitaŕ ta bertoko seme taldeak bialdu dabez España'ra Franco'ren alde gudatzera. Gudari bialtze oŕetan agintari batzuk, be, eruduu dira.

ALKAŔ JO

Londres. — Guda ontziak gertakizunak egiten ziñarduela Malta'n alkaŕ jo eiteben guda ontzi bik, oŕein aŕtean "Antilope" dogu bat, eta kalte aundi txamaŕak egin ei yakuezan.

U. R. S. S.'KO ORDEZKARI BAŔIA

Mosku. — Artezkaritza Batza'k orain Rusja'ko ordezkari España'n zana beste agintaritza edo eginkizun baterako auketatu ei dau ta oŕen ordez beste ordezkari bat izentatuko ei dau España'rako.

Kontrolaren ezarkera

Ogetasei estaduen indarrak kontrol dalako ezarten lan egingo dabe

Itxasertzak sarratu ezkero españar eta euzko gudeak amaituko ete?-Portugal'en lurraldetan ingelesak zaintzalle.

Londres.—España'ko muga ta itxasertzetako zainketa 26 estadutako indaŕen kontu geldituko da kontrol ezarte ortan.

Españaŕ eŕi-baŕuko gudearen amaya itxasertz-bideak ertsita usteŕa da, aurki.

España'zko mugaetan, Portugal'ek, bere lurraldean ingeles gudariak izan daitezala zaintzale, ontzat artu bide dau, eta asmo orixe betetara iritxiko dala uste dabe aituak. Inglateŕa'z alkar aituko dabela ta.

Mañari

JUAN ETORIAK.—Axpe-Martzana'ra juan ziran, Ganboa'taŕ Gotzon gu-ŝari gastiaren lobiratzera, Solaguren' daŕ Andere ta Aldekoa'taŕ Gotzone emakume begikuak.

—Santurtze'ra juan zan Subiñaz'taŕ Jone emakume zintzuak.

—Iturbe'taŕ Ixidor txaunburu jauna be, egubenian Bilbo'ra juan zan bere anaya Pantzeska gudarija ikertuten.

—Galdakano'tik etoŕi zan Ozerin'daŕ Susebe andera.

GURE GUDARIJAK.—Etxanobe'taŕ Sabin gudarija lengo igandian bere gu-rasuen ondoan egon zan.

"Artzubi,,'ko Kepa motoskua be Otxandijo-aldetik mutil eŕimia ageŕtu da.

Gofotxategi'taŕ Matai gudari zintzu-ak baŕiz, Elgeta'ko guda-oñetik bere amari eŕekau ona bi-ldu dautzo; bera an ondo aurkitzen dala ta arduratan ez egoteko ta abaŕ abixau dautzo ta. Ofo semiaren "konpridua"i

Eŕi-ontako enparau gudarijak be onde aurkitzen dirala diñue. Poztuten gara.

LANGILE ONAK.—Lete'taŕ Eusebi Jon, Aŕizabalaga'taŕ Pantzeska ta Go-fotxategi'taŕ Augustin eta beste ba-tzuk, zapadore-lanetan ekiteko ustez da mustez lengo igandian Otxandijo-aldera juan ziran.

Mutil gaste oneik, langile ontxuak be ba-dira-ta, dagozan lekuan, emen esaten dan lez, "aŕi ta orma" gogoŕ ibiliko dira... Ondo ibili ba; ta aŕi-esi genduak imini oŕ, beste mutilak onantza abijau eztajtezan be... Bestela, gal-duak gozak...!

IGALI-LORAK.—Aurten, igali-lorak, negu epela dalako edo, nagi-usain an-di baŕik ageŕtu dira. Zugatz asko ta asko, dan orduko loraz beterik dagoz. Lorok, baña, goxegi ageŕtu diralako, gerok, ekatxen batek gauzeztu leike-zala ta, jentia arduratan dago.

Bildur ixateko da ixan be, "marti kakatsu" be ganian dogu ta.

IRASTORTZA'TAŔ EUSEBI'RI. — Elgeta'ko guda-oñetik zeure aizkide Jule'ri zuzenduten dautzazuzan euzke-razko idazki txukunak, aŕetaz iaakuŕ-ten doguz; eta idazki oŕeik, euzkeraz razko idazki txukunak, aŕetaz irakuŕ-ten doguz. Eta... guda oñian zagozala be, kistaŕ-biaŕkunak alik ondoen bete-tuten alegintzen zariela jakitian baŕiz, asko poztu gintzazan. Gudari zintzua-ren egiñenik goraigaŕijena oxe da ixan be, Jaungoikua ta Abeŕija matetutja...

Auŕerantzian be olantxe jaŕatu, Eu-sebi, beti kistaŕ eta beti euzkotaŕ; eta... geure euzkera p rbi-matagaŕija gauza gustijetan auŕenengo erabilijagaz euz-keldun ona be beti izan...

Neuretzat bieltzen dozuzan gorantzi-jakatik baŕiz eskefik-asko. Otoitz egin-go dogu.

MAÑARIKO.

Zornotza

¡BASERITAR GIXAXOAK!—Euzka-di geure Abeŕi mate onetan igaroriko sazpi lóabete onetan darabilgun guda madarikatu onetan amaikatxu esamesa entzun biaŕ ixan doguz baseŕitaŕok.

Esamesa onetan gaŕantzitsuena eta geyen agomiñian darabilena janari arasoa da ezpai barik.

Saŕi eta saŕi entzun dogu baseŕiko gauzak neuŕi bako gorakadak egin da-bezala saneuŕijetan, baña onek gauzok esaten dabezanak ez dira baseŕitaŕak, ezta asko gitxiago be ez dabe onek, guk baseŕitaŕak lez aize otz eta euz-ko-berorik aŕtu, ezta lo asko galdu be baseŕiko gauzak aŕtu-ko.

Aŕautzak gustiz ei-dagoz karu eta alan aza, poru, kinpula, luŕ-sagaŕ, esne eta abar.

Egija dala ezin leike iñok ukatu, ¿ze saneuŕi eben, guda au asi baño len ba-seŕitarak erosi biaŕ ebazan gauzak? ¿Eta guda au asi ta gero Ara euren apuŕ bat gora-bera. Len aŕtua, 38; or-ain, 59 laurleko; poru-asija, kilua len, 17; orain 70; beijentzako torta de coco esaten dautsena, len, 40, orain, 73; eŕe-molatxa asija len, 3, orain, 10, eta olan beste gauza gustijek. Beyak be len iru lau mila erlegar erosten genbazan baña orain zortzi amaŕ mila eŕial biaŕ doguz eta ori bei on-ona eztala eta; gero oŕ dabiz esnia asumbria txakuŕ andi bi geyago ordaintzeko goyak eta beyak jo biaŕik!

Eta ostera zoaz akeit-etxe eta edan -tokietara eta oŕ ikusiko dozuz basu-txu bete-garagoŕdo edo kopatxu bate-gaŕik asumbre bat esne baño geyago ordaintzen eta ixil-ixilik ordaindu be, jez baseŕitaŕak salduko ba'leuz!

Ikusten danez, guda onen eŕudun be, oindiño baseŕitaŕok izango gara, onek gauzok diñoazanak guk baño paxista usain geyago eukl aŕen.

ARMUKI.

Meñaka

Guda gofotuzkua Euzkadi'n
Zori txaŕeko guda dala-ta
negaŕez dago Euzkadi,
zotinka ere bere semiak
auxe diraute amari
Ekaŕi dabez mairuak on:
gofotoz beteŕik zeuri
alpeŕik dabe ama maŧia
alaitu zuk biotzari
zeure semiak mate ŕaituzta
azkatuko da Euzkadi.

Aŧariik gabe ainbeste ume
amak dira alargundute
Eŕlegiñua abaŕ dabela
goguak dauz baltzitute
Egiñen oŕek ipiñi dituz
ludi osuan agertute
Etojkerizko facista oŕek
nun zaratia saŕtuta
Igeŕ dozue gurenda auetai
zagoziala galdute.

Lenengo Euzkadi'n gero Madrid' (en
nai zuenian saŕtzeko
Ezkiñek ondo jo zenduezan
Euzkadi lenan artzeko.
Gure mutiiak guti ziraden
Bizkaya aŕtu orduko
Madrid aldera gero bidia
ara beinguan saŕtzeko
baña ak ere semiak ditu
agiñak erakusteko

Orain dezuen erebagia
Oso da lotsagaŕia
Indaŕ gabeko eŕija apuŕtu
Ume gaizozuak iltja
Jaupari zintzo eta garbijai
bulaŕak zulotutia
Egiñen oŕek baltzez jantzidau
Euzkadi ama matia
ez datzu Euzkadi'k iñoiz
aztuko dabiltzun Etojkerija.

Auŕe aldeti sutsu zabiltzen
Meñaka'taŕ anaya
zuen gomutaz emen dezue
zaŕa eta gaste ja
Goiko Jaun ona lagun dizuela
auxe da gure eskaŕija
Euzko-amari eskiñirik au
zain eta odol garbia
besaŕkada bat biotz biotzez
ene anaya matja.

SOLUBEPE.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Panoramas fascistas. Afirmaciones gratuitas, no." Olantxe ixenpuruŧuten dau "I. de O."k bere idazlana.

Gauŕ paxioatzaz asko esaten da—diño—. Baña gai ez diraia Moises'en irakastolean jaŕten diran parixetaŕ asko ta askok, pa-xiotasunaren benetako guna ez dabe eza-gututen.

Katolikuak paxiotzat daukena, auxe ei -da: abeŕijari aldin gustija damotsan abeŕ-tzaletasuna; gixonak, lufaldiak eta dana, abeŕija indaŕduteko opalduten dabezan abeŕtzaletasuna.

Ordez, baña, benetako abeŕtzaletasunari yaokazan baldintzat, beste oneik dirala au tortu biaŕ: abeŕijari baldintzapian eta be-ra gorago dagozanaj kaltegaŕi ez diran la-guntza gustijak opa ixatia. Azkenengo au ei-da benetako abeŕtzaletasuna. Bestia, os-tera, paxiotaŕen abeŕtzaletasun laŧegija.

"Tierra Vasca"

"El valor de la renunciación." Olantxe ixenpuruŧuten dau lenengo idazlana.

Aldijak agintzen dabezan egin biaŕai erantzuteko etxeko zabalgundia egitia aiz tuta gagozala uste dabenak, okeŕ dagoza-la diño. Aldi au ez ei da etxera begira, etxeko oñketeari begira bakaŕik egoteko aldija, auzokide gustijen batasunian oron areyua dan areyo ankeŕari oldaŕtuten ibil ŧekua baño.

Eta guda-aldi onetan egiten dabena, ori-xe ei-da, ta besterik ez.

Beraz, gauŕ, gure ikuŕiña batuta aurkit-zen da. Enparaukuenak be, guŕiaren an-tzian batuta aurkitu dedizan, alegindu aŕen, irakuŕle—esaten dau—, ori egiñaz gurenda -aldez lan edeŕa baxen onurakoŕa egingo dozu-ta.

'Lan Deya"

"Discutiendo. El gran inquisidor." Oni xek dira izpaŕingi onen lenengo idazlana ixenpuruŧuten daben 'efuak.

"El Liberal"eŕi ukuŧuten dautsa, ta iz paŕingi oŕek uzkera gauzetarako ageŕtu ten daben gofotua laŕegija dala diño.

Gofoto ori dala ta, Gallois'ek agertuten daben azkondarija edo inquisidoria dala esan leikela diño izpaŕingi oŕetan idazten daben euzkotaŕen areyo agiriko ori.

Euzko-langiliak, baña, "El Liberal"en zentzunbakokerijei jaramonik egin baŕik, euren bide zuzenari jaŕaŧuten ei dautsoe, biderik zuzenena la labuŕena be, euzko -langiliek daŕayen bidia dala ta.

¿Zer dala ta gura ete-dau, "El Libe-ral"ek, geuk ondo ezagututen dogun bidia laga, ta ezagututen ez dogun bidetik gu botatia?, ifuntzen dau.

Etxaguntzen egiz aldeztuten dabela di ño. Baña laŕegikeŕi baŕik, yaoken neuŕi -neuŕijan.

Ikusten danentz, "El Liberal"eko euzko -areyuak, langile-gauzetzaz idazten daben bakotxian, ankea saŕtu baño ez dau egiten.

"El Liberal"

Leon'go guda-oñetako eŕi-aldezliak auŕe-raka aundija egin ixan dabela diño. Pe-ñacastillo deritxon mendi-leŕuakaz jabetu ixan diraia esaten dau. Eta euretatik iru, jaso jasuak ei-dira, Robla menpe aŕtzen daben iru mendi-tontoŕ ospetsu.

Auŕeratze ori areyuak lo-zoŕuan egozan bitaŕtian egin ebelakua diño, aŕaturiko mendi-leŕuetara uaŕtuge eldu ixan ziraia -ta. Arevuak ige--egitian laga ebezan lu ganak eta guda esijakaz lenengo unetik jabetu ei-ziran.

Mendi-aŕapatze oŕi, "El Liberal" izpaŕ-ingijak, gaŕantzi aundija emoten dautsa.

Areyua be, lenengo ikara alditik urten zanian, baŕiro oldaŕtu gura-ixan ei-ebena, eta oldaŕtuten asi be egin ei-zan. Baña alpeŕik. Eŕi aldezliak baŕiro be gogoŕ erantzun ei-eutsen, eta lenenguan lez, atz-rantz eragin.

"Euzkadi Roja"

Sergio Ordjodnikize Sovietaŕen Gintza oŕnilari nagosijaren erijotzeatzaz idazten dau izpaŕingi oŕek.

Sergi edo dalako oŕi, beriala il ei da-il be. Eta bera ixan dan aŕgija ta abeŕ-tzale zintzua ixan dalako, sovietaŕen aŕ tian utsune aundija laga ei dau.

Goraiben aundijak egiten dautsoez. Le nin eta Stalin'en alderdijan jaŕaŧu n ei-dau, alderdi oŕetatik bein be aldatu rik jaŕaŧu be.

Bere bixitza gustijan egin ixan daben lana eŕijen azkatasuna loŕtuteko lana ixan ei-da. Eta azkenian be, azkatasun-aldezko lanetan dabilala eŕijotzeak oratu ei dau-tsa. Eŕijotzea ixila da ixan be, gau-lapuŕa lez usterik gitxijen danian etoŕten dana, Sergi'ri be alantxe etoŕi ixan yako...

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa ta Araba'ko izpaŕak iragaŕ ten dauz.

Eŕi-aldezlien adoria ta trebetasuna agi rijan iminteko, gudari trebe oneik Elgoi baŕ'ko tximistaŕgi-etxiaz egin ixan dabe-na edestuten dausku.

Goxaldia ei-an. Eta etxe-baŕuban au kitzen ziran langilieį kalterik ez egitiaŕen, areik ez jakiñian ziran aŕtian, etxia esiŧu ei-eben, eta baŕuban aurkitzen ziranak es pe aŕtu.

Gero, baŕiz, baŕukuak espe aŕtu ixan ebezenian, tximistaŕgi-etxia deuseztuta la ga ei-eben. Eta ori gusti oŕi, paxiotaŕak erdi-lotan aurkitzen ziran aŕtian

Baranbio-aldetik onuntz etoŕi ixan dan zaldizko gudari baten izpaŕa be emoten dau. Ubidea aldetik, ostera, Legutiano'ri ta, betiko eran oldaŕtuten ei-dautsoe.

"C. N. T."

"La C. N. T. fija su posición" ixenpu-ruŧuten dau lenengo idazlana.

Eta jaŕiko lefuetan idazten dauana, So-zialista Alderdijak argitaldu ixan daben uaŕari erantzuten dautsa.

Eta erantzun onetan euren aŕteko juan etoŕijen edestija edestuten dau.

Beste leku baten emoten dauan izpaŕa-auxe da: Dimitri Ivanoŕ, beñola Asturias' en Sirval izpaŕingilarija erail ixan eban efusitaŕ tenientia, La Marañosa'ko guda -soñian ixan dala, ta eŕi aldezlien berun-bilpian jausi be.

"Euzko Langille"

Euzkadi'tik iges-egiteko asmoetan ibil-ixan diranak eta ertzañen eskubetan jausi ixan diranen egunotako jazokunatzaz idaz-ten dau.

Eŕi-aldezliakin dagozala esaten daben batzuk be lakirijo oŕetan jausi ixan dira -a diño. Ondiño, baña, jausi baŕik be, as-kotxu bixi diralakua agertuten dau. Gu-daldija igazten onuntz etoŕiia, euren eŕi-jetara juateko asti baŕik matxinadeak emen aŕtu ebazan askotxu ei-dira, ba, emen ondiño. Eta onenian, obeto gordeta egon dagixantzat, eŕi aldezle agertzen diranen zainpian egongo ei-dira.

Oŕeik be, agertu egin biaŕ ei-dira baŕiz, oŕein beste alderatutia Euzkadi'ren kalte gaŕi ixango litzakela-ta.

Gordeta aurkitzen diran areyo gusti oŕei eskuba ezaŕtiari ondo be ondo deritxo "Euzko Langile"k.

"Euzko-gudariek, Asturias'ko mendietan"

Onuntz etoŕi beaŕ genuela agindu zigu ben. Onera etoŕtze oŕekin gure maiteko diran agintariari enbasu astuna kentzeaŕen. Pozik ortenak gera Bilbo'ko geltokitik, bertoratu ziralako Agiŕe, Leizaola, Lasar ra ta beste jaunak. Euren biotzetiko agur-tzada aiek; naiko genduzen gure izate gu ziak alaitzeko.

Irtetzerakoak oyua alde guzitan, eta mo-ŧeguzietako deadaŕak. Neuk ¡gora Jel! egin nuan, izan ditezen emen eŕailtzen ba' mautse-ere, ortik, bere Abeŕi kutuntik ir tetzerako egon nituan azken itzak. Guzi-k gogoz erantzun zioten gure azken oyuei.

Amabiak inguru abiatu giñan, da beatzi orduan burni-bidean ziaŕ Arriendo emen go eŕitxora aldendu aŕte. Eŕi ontan gora aŕe ikusgaŕia. Aŕituak galdezka: ¡Ia euzko gudariak onera!... Sagaŕdo apardu-nari. ¡Kia atera genion! ¡Bilbo'n balegoke! Litroa pestan.

Eŕitxo ontan egun edeŕa igaro genduan ta iluntzean bultzian oztea beste eŕi bate-ra. Berebiletan saŕtu giñan, da Gijon aŕ-te. Goizeko ordubiak ziran, loaliari eldu zaiñik, eta gozea ere ba genuan... Emen dik oztea beŕiro bultzian Trubia eŕira aŕ te. Eŕi auxe aipatua degu urte auetan, eta egiz ikusgaŕia dago... etxe ta lan tokiak nearo apuŕtuak. Bereala emen ere ekaŕi nituzten berebilak, eta orain gauden leku-aŕte.

Atseden beaŕian gauden, eta gudari gu niok inguruetako baseŕitan aukeratu ditu-gu oraingozko bizi-lekuak.

Eskui aldean Naranko mendi sonatua daukagu. Aurez, ta alboan ere beste are-riyo mendiakz. Eta, egun guzian tiro otsak entzuten dira. Ezagun dala dirudi ez gao-izela Eukadi'n, eta omen espuelak gaŕa-tzuago dautzatu beaŕ'an izango gerala.

Oraindik ez gera mendiratu. Ordu gu-txi da etoŕi gerala, ta biyar edo... azkaŕ beintzat: moro, palanke ta piztiari kon-pite ugariak eskeñi beaŕian izango gera.

Donboraz obetoago jakin eta ezagutuko ditugu baste aŕak, eta Jaungoiko aundia la-gun degularik. Era ona izan dezagula, ta izuek or bitaŕtean gutzaz oroitu. Nik emendik, beŕi ugariak bialduko ditut.

Beti Jel'pian,

EGUZKI

"Kiskitza'ren" aldez

Oraindañokoa...	600
Baeŕ'taŕ Sebasten	5
Mugertza'taŕ Pantzeska	10
Bilalabeitia'taŕ Karla	10
Fernandez Lekuona'taŕ K....	10
Urdangarin'taŕ Joseba	5
Apaolaza'taŕ Pantzeska... ...	10
Ormaetxea'taŕ Andoni	5
Oraindaño laurleko ...	655

Lanetan eta aginpidean jarraiteko gertu

Paris.—Gauŕ aŕatsaldean sozialista aldu-mak izan daben batzaŕean Auriol jaunak aginpideari istea duana guzuŕa dala esan dau ta beste agintariekin batean aginpi-dean ta lanean jaŕaitzeko asmotan daguela adierazo dau. Janariен saneuŕiak geitu ez daitezan bideren bat aukeratu dau Blum jaunak.

PURUBAK GALDU.

Paxiotaŕak beti be baj, beti be txo-riburubak ixan dira Baña aldi onetan, txoriburubak be ez diraia esan lejke, burubak galduta dagozan buru bako batzuk dirala baño

⁂

Zugatz-andia, bere igalijetatik eza-gututen, dala esaten dabe, ta alantxe ixan be

Gixona be, ba, bere egiñenetatik eza-gututen da: gixa-igalijetatik.

Gixa-igallijak, gixonak egiten dabe-zan egitadak dira, ta ez gixonak itzez edatuten dabezan axezko eretxijak.

⁂

Azken-aldijon, Gipuzkoa-aldetik Biz-kai'ra elduten diranak, askotxu dira. Eta onelk, ¡kusmendunak eta entzu-mendunak dira-ta, an, Gipuzkoa'n pa-xiotaŕen aŕtian bixi ixan diranaŕtian ikusi ta entzun ixan dabezan gauza as-ko esaten dabez.

⁂

Egun baten, paxiotaŕak, Uŕaka ixe-neko eŕekete-emia auŕetik zala, Aŕa-sate'ko eŕtxadonera eldu ei-ziran. Eta an, euren "katolikutasunari" (?) ospia ta indaŕa emotiaŕen-edo, eleiz-iai aun-di bat egin ei-eben.

⁂

Jaupea amatu zanian, Uŕaka ixeneko amakumiak, korura-begira jaŕita, esku zabal bijakaz txalo zoli bat jo ei-eban, eta txauneskindarijari "Oriamendi" jo-teko agindu.

Organisteru gixagaxuak, "Oriamen-di" joten nundik asten zan be ez ei -ekijan-eta, esturaldirik laŕijenak ja-san biaŕa ixan ei-eban, eta Uŕaka mo-ko-zoŕotzaren agiraka gaŕatzak entzun biaŕa be baj.

⁂

Abesti arek erdi-merdika urten ba eban be, aren okeŕa zuzenduteko-edo, Uŕaka eŕekete-emiak beste agindu au emon ei-eban: "¡Arriba España!" didaŕ egiteko. Eta didaŕ areik be, aŕasatetaŕen trebetasunik ezagatik-edo, su ba-rik urtetan ei-eben, España jausija ja-soteko besteko berotasun barik..

⁂

Eta Uŕaka eŕekete-emiak, eŕeketetzat eukazan aŕasatetaŕak "Oriamen-di" ereserkija abestuteko gogo barik eta "¡Arriba España!" didaŕ egiteko su barik idoro ebazala uaŕtu ebanian, asaŕez irakiten jaŕi ei-zan, eta zoro bat eginda "¡abajo l clero vasco!" didaŕka... ¡A lako jazokunik...! Aŕasate'ko jauparijak, ¡rain ikaragaŕi a entzunda, luŕ jota jaŕi ei-ziran, jora begiratute-ko be adore barik. Andik egun gitxira, Aŕasate'ko uri katoliku ta baketsutik, jaupari aguŕgaŕi batzuk betikotasune-rako bidia aŕtu biaŕa ixan ei-eben: eraíl-egin ei-ebezan... ¡Oŕa oŕ Uŕaka'-ren mokua..!

⁂

Paxiotaŕak burubak galduta dabil-tzala esan dogu. Eta egiten dabezanak ikusi-ezkero, besterik esan be ezin leike.

Katoliku gustijen antzikuŕ - antzo agertu gura daben paxiotaŕ oŕeik, ba, Elexa dauna be, euren eŕiketa-zabal-gundia egiteko aŕtu dabela dirudi. Mo-triko'ko eŕtxadonan, mutiko gastetxu-bakin-eta, euren guda-erako ibilketak -eta egiten dabezela esaten dabe. Guda -era oŕeik eŕakusteko, baŕiz, elexea ja-ko toki berezirik ez ei-dabe idoroten. Guda-ereserkijak abestuteko-ta be, txa-dona antzokitzat aŕtuta-edo, araxe, txadonara juaten ei-dira.

Burubak galduta dagozala esan be ezin leike.

EZKIOGA'RA

Malaga'ko jazokuna jazo zanetik, or-duraŕte erdi kikildu ta aurkitzen ziran asko ta asko, biztuten asi ei-ziran, eta gurenda a jai berezijakaz ospatuten.

Ezkioga'ra juaten be asi ei-ziran. Ez-kioga'ra juan eta an agertuten zala esaten zan Miren Neskutza'ri paxio-taŕen aldezko alatzak eskatuten.

⁂

Egun baten, baña, Ataun'go Patxi-ko'k esan ebala-ta, gipuzkoaŕ eŕeketiei gogoko ixan ez yaken izpaŕ bat edatu zan, eta eŕeketien entzumenetaraño eldu

Patxiko'k entzun gura ixan eben gus-tijei jakinazo ixan eutsena, izpaŕ ba-kan au ixan ei-zan, ba: paxiotaŕak ekaŕi ixan daben guda onen gurendea, eŕi-aldezliena ixango dala.

⁂

Patxiko'k zabaldutako izpaŕ oŕek, Ezkioga'ra osteraka asi ziran paxio-taŕak, luŕ jota jaŕi ixan ei-ebazan, Ataun'go Patxiko'ren kaltez asmau al ixan ebezan itz gogoŕ gustijak esaten: zorua zala ta abaŕ esan ixan ei-dabez.

Izpaŕ ori entzun ixan dabenezkero, baña, paxiotaŕik ez ei-da Ezkioga'ratu-ten. Eurak betuta jaŕi gura daben eŕi-jaren gurendea, eŕi-aldezlien gurendea iragaŕten daben tokira, ¿zetan juango dira juan be, ba?

⁂

Gipuzkoa'n eŕekete jantzita eŕi-eskubide gustijen auŕka jagiia dabiltzan paxiotaŕak burubak galduta dabiltzala esan dogu.

Eta esan dogun au, euren egintzak era-kusten dauskubena baño ez da.

Zugatzak, bere zugatz-endea, emoten da-bezan igalijakaz erakusten ba-dau, gixo-nak, be, bere baŕunbia, azaleratuten dau-zan egintzetan erakusten dau. Eta gipuz-koaŕ eŕekete gixagaxuak egiten dabezan egiñenak erakusten dauskubena, asikeran esan doguna da: burubak galduta dabil-tzala.

Euzko-erri-jakintza

GABON JAYA

"Eperi-anka" zer egiten dok
oŕ su-baztefian iefirik?
Juan adi arin Belen'era eta
an ze baŕi dan jakin egik.

Ai bolondron bolondraña
ai bolondron bolondraña.
kristau gustijok dakigu
gauŕ Gabon-gaba dala.

Notezija artu dogu
Jesus ona jayo dala,
enbarkari onakaz
guazen beragana.

Aj bolondron bolondraña
ai bolondron bolondraña,
kristau gustijok dakigu
gauŕ Gabon-gaba dala.

Gauŕ dala Belen
gauŕ dala Belen
jayo Jesus Nazaren,
gauŕ gaberdijan
bere ama onak
altzuan dan eŕabilen.

Uaŕa.—Abesti politau, igaroriko Ga-bonetan Gabon-gabian, Otxandijo'ko gi-xon batek ementxe Mañari'n abestu eban. Eta berak esan ebanez, ango eŕe-mentarijak Gabon-jai gustijetan jora-nez abestuten eben. Abestuteko doñua be, polit-polita dau.

"Eper-anka" baŕiz, antxiñeko eŕe-mentari baten ez-ixena edo gatx-ixe-na ei-da.

MAÑARIKO.

EUZKO GUDA-OÑETAN

KAÑOIEN JARDUNA

Eibar eta Markiña aldean baŧez be, suagakari edo kañoiak ia egun osoan jardun eben aizo.

Markiña'n oraingoan uriranŧz ez eben su egin paxistak.

Elorio aldeko guda-oñetan izkiluak ez eben atzo lau egun. Kañoiak labur ekin eutsen.

Elgeta'n erasoalditxoa izan zan, eta gureak erantzunik, erauntzia ezer ezean lotu zan. Artileriak aspaldi ez dau uri au zigortu nai. ta lenagoko alegiñak alpeŕikoak izan bai-zituen, alpeŕik su-gayak jaurtitzeari, ez deritxoe nonbait.

Orduña ta Ubidea'n gureak ibili ziran atzokoan bizkoŕago.

Eibar'era, goizean, bat eldu zan igesi.

ORIO-BANAKETA

Laurden bat buruko.

Bilbao'n: Txartela, 8 zenbakia. Ila ontako 23'gnez, azkener aldiz banatu zan saltokietan banantuko da.

UDALAK: 25'gn. egunez, baimenak batu.

SANEUŔIA: Betikoa.

Abertzaleak euzkeraren maitasun Aundikoa izan biardu ta azaldu

Ondo gogoratzen naiz gure uaŕian Monzon'daŕ Telespor jaun onek eman zigun itzaldiaz. Abeŕtzaletasuna zeŕ-dan gai onetan esan ziguna beti gogoa-an daukagu. Abeŕtzaleak, bageniguko abeŕtzaletasuna zeŕdan nola maitatu-ko genduken, oŕengatik askok ez da-kigulako erdera jauzitzen gera. Gabil-tzen leku guzietan euzkeraz itz berba egin biaŕ degula, aŕkorta etxe gelto-kietan aŕdandegi ta jolaz guzietan. One-la Monzon jauna onen itzaldia gaŕan-tzi aundikoa izan genduan abeŕtzaleak.

Uri txiki batean gertatuko ipuia. Mi-la ta laŕeun biztale dituan uri txiki batean gertatua edeztera noa. Uri txi-ki ontako ostatu batean saŕtu zan gi-zon baseŕitaŕ antzeko edadez auŕea zi-juan bat. Egun onak eman guzioi ta jan gelara juantzan. Neskato gaste bat bere ganatu zan zer biaŕko otezu-an, gizon onek, bi aŕautz maniatuak ekaŕiko ote ziyon esan zigon, neska-toak erderaz mitsatu zizayon. Gizon au une txiki batean ixilik egon ondoren diyo. Gaste, ez aldakitzu euzkeraz? Bai jauna. Ta orduan neŕi erderaz egin! Barkatu jauna, asi oŕtatu onetan beti erderaz aritzenaiz emenoak nayo du-telako; an esan alde egin zuan neska-toak bere lanetara.

Jan gelan an aritzan beste gizon bat jaten ta beste leku izkute batean gaste talde aundi bat erderaz maŕa-maŕa aŕi ziran. Gizon baseŕitaŕ antzekuan ezizan egon bere tokian, aurjan alboan ze-goan gizonaŕi galdera au egiten diyo. Adizkidea, abeŕtzale asko altzerate uri onetan; bai gizona erantzute diyo, ge-yenak bai mitzat. Oŕenbeste gera afa-liatuak Partido Nacionalistan. Au on-do dago, baño, bazkide izatea baita bi-aŕena edo euzkeraren maitasuna iza-tea! Aŕiturik nago oŕenbeste abeŕtzale ta bazkidetuak noja erdera eŕabiltzen duten uri onetan.

Badakitzu beŕa erderaz itz egiteko oitura aŕtu nunbait ta alaxen jaŕaitu besterik ez, emen gaŕerako uri onetan abeŕtzaleak dituzu geyenak. Baño gi-zona zer aŕi zera izketan, gayak ta biak naŕtutzen saŕata abeŕiaz diyo, gi-zon baseŕitaŕ antzeko onek.

An izkutuan erderaz aŕi ziran gas-teak, beraŕ lekuetatik jekita zer gaŕ-tatzen zan oŕenbeste saratakin entzu-ten jaŕi ziran.

Aŕiturik nago abeŕtzaleak euzkeraz jakin ta erderaz nola aritzen diran. Sabin en jaŕaizaleak dirala, ara gure iraka-leak zer egin zuan bere abeŕia Euzkadi zala ezagutu zuanian euzke-raz ikasi zuan, onela gure abeŕian elia euzkera dala aitortuaz.

Gura Ama euzkera baztartzen dua-nak ezin izan egizko abeŕtzalea, ta onela abeŕtzaletasuna zeŕdan ta zer egin biaŕduan gaŕbi azaldu zuan gizon baseŕitaŕ antzeko onek.

An erderaz aŕi ziraj guziak entzu zu-ten, ta beren aŕtean ziyoten, gizon onek araŕol aundia dik. Emendik aurea egiazko abeŕtzale jatoŕak izan biaŕ di-yogu. Esan egin, alaxen jaŕaitu zuten, ta eŕi gusia ere auek euzkaltzaletu zu-ten.

Eŕakutz bide edeŕa, onelakoak zen-bat abeŕtzale ote gaude euzkeraren maitasun gabiak, bai zoŕi txaŕez.

ITUŔALDE.

ATZERRIKO IZPARRAK

Italia ta Mexico asarretu dira

Hitler'ek eztau nai Habsburgo'tar erregerik.-Paxisten basatikerien aurka Peru'n. Teotico Sevilla, Bizkaya'n España'ren ordezkari, izan zana paxistak il egin dabe Soria'n.-Izparringi bat irakurtearren kartzelara.-Biyar batuko da barriro "ez sartzeko" batzordia.-Gudutarrak eta arabitarrak burrukan.-Frantze'ko itxasontziak.

GAÑEZKA

Tunez. — Azkenengo euriteak dirala-ta efekatxu batek gaiñezka egin dau eta etxedi bat urperatu. Amabi gizaseme il dira ta abere guzt'ak urak eruan daua.

ERAKUSKETA BATERAKO

Paris. — 1937'gn. Paris'en egingo dau Erakusketa Nagusia'n España'ko Gobernua'k, be, bere saila izango dau ta Trocadero-etxoan izan, be.

IVANOFF IL DABE

Madrid. — "Castilla Libre" izpafingiak diñonez La Marañosa guda oiñean il da be efi-aldezliak 1934'gn. ufilean Sirval izpaflaria erail eban Dimitri Ivanoff.

BIZKAI'KO GOBERNADORE IZAN ZAN TEOTICO SEVILLA SORIA'N PAXISTAK ERAIL DABE

Bayona. — Izquierda Republicana alderdian urten-urtena zan Teotico Sevilla Soria'n paxistak erail dabe, andik datozan izpafingiak diñonez.

Matxiñadea sortu zanean Segovia'ko efitxu egoan eta paxistak Soria'ra eruan eben. Soria zan bere jaiotefia.

Len Teotico Sevilla radical sozialisten afteko zan eta Bizkai'ko gobernadore, be, izan zan.

RUSIA'KO AGINTARI OSPATSU BAT IL DA

Moscu. — Guritza Zuzendari izan dan Gregorio Constantinovich gauf goizean il da. Lenin'en lankide ta efi alderdi gartsua zenduan.

Baltsakeri zaleen alde egin euzanak zirala-ta Siberia'ra zigortuta bizi izan zan bein baiño geiagatan. Gintza Zuzendaritza'n lan asko egin dau.

U. R. S. S.'ko komunista Alderdi'ko Artezkaritza Nagusi'ko burukide zan.

1866'gn. asi zan politika arazuetan. 1906'gn. Siberia'n bizi izateko zigofa emon entsen eta iges egin eban. Boltxebitafak burukiderik ospetsuenetarikoa galdu dabe.

ATLANTICO - ITXASOAN PRANTZIA'KO GUDA ONTZIAK EUREN GERTAKIZUNAK EGITEN

Paris. — Atlantico'n Prantzia'ko guda ontzi taldeak bere gertakizunak buratu dagiñean daukaz. Prantzia'ren mende dagozan Apirka'ko itxasertzetan dabiltz 35 pantzetaf guda ontzi.

Guda-ontziok of ibiltea ez da politika auziren bat dala ta.

RUSIA'KO GOBERNUA'REN AZALPENA

Mosku.—Itxaspeko gudeariburuz Ingelatefa'k dauzan asmoak ontzat aftzen dau zala ta 1930'gn. egiunerik ez dauala ausiko adierazo dau Rusia'ko Gobernua'k.

INDUTAREN AURKA

Jerusalen.—Indutafena zan eta judutafak egozan ibaf bat arabitafak guda-izkiluz orniduta eurontzat aftu dabe.

PAXISTEN-ANKERKERIEN AURKA PERU'N

Lima.—Burgos'ko Asaldarien Agintaritza Nagusia'ri ufutidazki bat bialdu dau tsoe Peru'tik. Efi efukafiak suagatuten dabezalako euren asafea agertzen dautse.

ITALIA TA MEXICO ASAŔETU DIRA

Mexico.—Mexico'ko lufaldeetatik atara da Italia'ren ordezkari zan Marquetti jauna. Mexico'ko lendakari Cardenas'ek berak Italja'ra ordezkaririk ez dabela bialduko aitzen emon dautso kontizu.

España'ko efkaldafen adizkide dala Mexico ta oraiñafte lagundu izan dautsonez dautsola aufera, be, España'ko Efkala'ri adierazo dau lendakari ofek.

EGAZKINLARIEN LAGUNTZALE OSPETSU BAT IL DA

Londres.—Sir Robert Houston'en alargun lady Houston andera aberatsa Londres'en il da.

"Saturday Review"en jaube ta beste ola askotako nagusi zan andera ori.

Egazkadarik aundienak egiten ebezan egazkinlariei sari asko emon eutsezan eta entzutetsu egin zan. Everest mendi-gaiñean egin ziran egazketak, be, lady Houston'ek eta lord Clydesdale'k ordaindu ebezan. Himalaya mendi ileren gaiñean orain urte batzuk egin ziran egazkadak, be, ofetzek ordaindu ebezan. Egazkada ofeitan pelikulak be atara ebezan.

IZPAŔINGI BAT IRAKURTEAŔEN ATXILOTU

Londres. — Hamburgo'tik Ingelatefa'ko portuetara osteraka dabiltzan itxasontzietan mofoi zan alemanda bat, laboristen "Daily Herald" izpafingi irakufi ebelako salatu ta espetxeratu egin ei-dabe.

Izpafingi ofetan Alemania ta Italia'ren España'ko autuetan saftzearen nabarmena agertzen zan eta Alemania'ren lotsagaldukoerien bafi emon.

Errizaleak zorionez

Madrid.—Paxistak eukezan Aravaca inguruko gauak, efizaleak artu dituezala difioe. Gain-ofeitatik, azpian artzen dira La Coruña'rako eta El Plantio'rako bideak.

Cuesta de las Perdices deritzana, lau oruko burukaldi ondorean eskuratu eben erkaltzaleak, eta orobat Aravaca'ra doian burnibidea.

Jarama aldean burukaldi gogofa gaurkoa.

Valencia'rako bidea Pizarron menditik kafioi suagaz josi daroe paxistak. Gaurko buruka ondoren, efizaleak mendi ofen maldu ta aldapaetara igon dabe, eta bertan toki egin, malkafetan.

Cerro de los Angeles'en atxilotuta efizalien mende gelditu ziran soldauak, bafiren bafi gudaka asi dira, baña oraingoan lengo euren agindarien kaltez. Iru buruko piztia—Itali, Alemani ta Marruecos'ren—kontra asi dira oraingoan, eurek esakeraz.

Eguazteneko bonbardeoan, 52 fiak eta 162 zauritu ziran.

Aile-Selassie, Abisinia'ko bakalduna, Itali efi zapaltzaliaren zitalkerien bidez, bere abefitik at ibili biafean da. Atzoko izpafingiak iñoenez, orain, Checoeslovaquia'ra juan da bizitzen. Argazki onetan ikusi daikezubee, semea lagun doala.

HABSBURGO'REN AURKA HITLER

Viena.—Habsburgotafak efege egiten ba:dabez Austria'ko arazuetan parte aftuko dauala adierazo ei dau Hitler'ek bere ordezkarien bitaftez Europa'ko uriburuen batzuetan.

Askok ez dabe ziñesten izpaf ori.

Diplomatikuak auzi ofen bafirik ez ei ekien.

Austria'ko Habsburgotafak efegetzara jasoteko alegiñak. Berlin'en ez dabez abegi onez ikusten.

Von Neurath lastef Viena'ratuko ei da: baiña politiko batzokietan Von Neurath'ek auzi ori ez dabela, arakatuko uste dabe.

NEKAZARITZA ARAZOAK

Paris.—Perdinand Morin buru ta Nekazaritza Zaingo'ko Arduraduna tarteko ebezala batzafa egin dabe Prantzia'ko aldinak. Nekazari salgaiei saneufiak ezartea izan dabe batzaf ofetan eztabaidatu daben autuetariko bat.

LONDRES'EN BATZAŔTU ZIRAN

Londres. — "Ez saftzeko Batzorde Txikia'k" atzo Londres'en egon eban batzafa. Afatsaldeko bostetan batu ziran eta zazpi ta erdietan buruko. Erabagirik ezin aftu izan eben eta astelenean beste batzaf bat egiteko asmua aftu eben. Rusia ta Portugal'en itxas-kontrola Gobernuak arakatuko dabe.

HAVAS IZPAŔBATZALE BATZA'REN IZPAŔAK

Pekin.—Hopei Chavar'go laterri-eralkundea egiteko batzaf bat eskatuko dau Nankin'go Gobernuak eta izpaf ori gafantzi aundia emon dautse txinaf politikoak.

Japondafak eralkunde ori egin ez daiten ostopo ta eragozpen asko ipiñiko dabez.

MALAGA'RA JANARIAK

Bayona.—Malaga'ra janariak eldu dirala diñue paxisten radioak; alde guztietatik eldu, be, Ingelatefa'tik, be, baj ausago.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

"Mar Caspio" ontzia eldu da diru txikiz beteta

Biyar salduko dira posporuak eta errekin-ingia. - Salerosketa'ko zaingoa indi-baba, urdai, aragi eta beste gayak erosteko azkenak emoten.-Zaingoetako arduradun batzuk Valencia'ra.

Lendakaritzan

Agefaldiak

Ola-jaun batzuen ikertaldia izan eban atzo Agiñe jaunak. Bilbao'ko Gurutz Gori'ko bazkintza artezkaria.

Afatsaldeko ordubatetan Efi-Zaintzako burukidea eldu zan jauregi ontara, lendakariaz itz egitera.

"Mar Caspio", Bilbao'n

Atzo, Bilbao'ra eldu zan "Mar Caspio" ontzia. Paxistak ontzi au artu ebela zabaldu eben, bafian egia argi jakin daikie irakufleak

Diru bafia

Ontzi ofek berak ekafi ditu Euzkadi'ko Jaurlaritza'k agindutako diru bafiak, eta berialaxe zabaldu dira

Salerosketa ta Orniketan

Erosi diran gayak

Patata eta afautza pila andiak erosteko tratua egin dau Zaingo onek.

Beste gauza asko erosteko be alegiñetan diardugu: abelgofientzat janariak, indiaba, urdai, okela eta aragi gatzemona. Ta cacao be bai.

Beronen arloari lotuta gogotsu diardu Zaingoak. Orniketa arazua alde ugari ta erosaen egiteko, gauf arteko alegiñak ez dira utsak izan, eta pozik gagoz.

Orfyo banaketa

Ufengo asteastean, 23'gn egingo orio banaketea Bilbao'n, oi dan lez. Efietan, eguenean, 25'gn.

Azpilkada bakafa

Barikutik betebeafeko da platerkada bakafa deritxon jataldia.

Menu eta saneufien bafi jatetxe guztiak janari zuzendaritza'ra bialtzeko agintzen dautsegu ostatariai.

Txokolatea, geroago

Ila onen 24'gn. esan bezela, ez da ordea, txokolaterik bananduko. Orraindiño ufi samaf dogu, bai, eta lastef ugariago emotekotan, atzeratu dogu.

Txokolate obeagoa, euneko amar, gexotegietarako izango da.

Afastak eta efe-ingiak

Biaf, afsta edo posporuak eta efe-ingiak salgei jafiko dira.

Ornfketa zuzendaritza

Orniketa arazoa orafiarte, Euzkadi, Santander eta Asturias'koa batera eroan dauan Zuzendaritza gaurgero ezereztuta gelditu da, Euzko Jaurlaritzaren aginduz, eta Asturias'en eskariz.

Karamelo ta gozoftk ez

Gaurtik, karamelo ta gozokirik egitea zearo galerazi dogu, beafezkoagoa diran gauzetarako erabiliaz azukarea.

Onean lortu ez dana, legez galerazi beafa izan degu. Orain artu egindakoak salgei dira.

Nekazaritza

Batzaf gafantzitsua

Goiz oso ta geyagoan jardun eban atzo burukide jaunak, lugintza eta abelgofi arloaz izketan, lugin eta abelgofi batzaetako ordezkariak.

Batzaf ofek gafantzi aundia dauka.

Agefaldia

Afiaga'taf Emili, Bilbao'taf Joseba, Negrete'taf Kepa, Olabafia ta Zubizafeta, Zelaya'taf Efogeli, Iriondo'taf Jon Andoni, Intxuasti'taf Bitoren, Itufitz'taf Pantzeska, Orduña'ko alkate ta idazkari, Basurto'taf Efamon, Urionataf Joseba, Kintana'taf Gergori, Madariaga'ta Bernardin, Llodio'taf Mauri, San Pedro'taf Bitor eta Basauri'ko idazkari.

Osasun-zaingoa

Lan egokia

Solo ta landetxeak Zaingo onek bere ardurapean artu, eta landu ta erabiliaz, jasotako emaitzak gexotegietarako izanaz, gauza eutsan izpafkari go litzakela aipatu eutsan izpafkari betek Labra idazkari nagusiari.

Asmo egoki ori gauf arte be egin barik ez dagola, erantzun eban idazkari ofek.

Zaingo onen ardurape dagozan gexoetxe guztiak beaf daben edozer izan dabe eta ba-dabe. Inortxu be ez da gexotegietan kexa edo espaz. Sendagile, otsein eta gexoak, danak dagoz pozik.

Gizarte-Laguntza

Gudarien umezurtzat

"Rebelion de la Sal" izeneko gudaloroak batutako 125 laufleko eman genitugun gudarien umezurtzentzat Idazkaritza berezian.

Beste emakuntza batzuk

Zaingo'ko beafak ornitzeko emakuntza onetxek jaso zituzten:

Gernika'ko Efi - Artezkaritza'rena, pelota-joko batekoa, 1.141,25 laufleko.

Gizarte-laguntzakoarena, 25.

Danetara: 1.166,25 laufleko.

Erdutzeko

Sendiko auzi baten befi jakin-erazteko, Moralobo Segura'taf Bingen'ri, C. N. T.'ko bigafen gudaloro, Plana Mayor'ekoari, Zaingo ontako Idazkaritzara erdutzeko dei dagiogu, 17.756 zenbakidun ufutizkifiera deitzeko beslera.

Gracia jauna geroago ta osasuntsuago dagola esan ziguten eta ikertzaile asko erdutzen zaizkiola.

Bustos jaunak esan ziguna

Auxe esan zigun atzo Zaingo'ko idazkari nagusi Bustos jaunak:

—Bi izpaf emango dizkitzutet, ez garantzitsuak diralako, begi-begiko zaizkidalako baiño.

Eskutik bat jaso degu—ta erakutsi egin zigun—; "Ayuda a España de Cardiff, de los Trade Unions" eta "Laborista" Alderdi'ko Batzordearena. Eskutitzak dionez, "Urbi" itxas-ontzian 7 efopa-pardel, 16 janari-kaja, 16 patata-zofo, 3 babafu-zofo, afoz-zofo bat eta idazti-kaja bat bialtzen dizkigute.

Cardiff Inypady y Bedwas'eko langileak erosi dute bialtzen digutena eta Zaingo ontako beafetarako eman.

Beste eskutitz begiko bat ere jaso degu—jafaitu zuan Bustos jaunak—Doña Maria Campos de Cardiff'en izenez idatzitakoa da ta U. G. T.'ra zuzendutakoa. Batza onek, bialdu dioenetik, 4 gozoki-zofo, 24 esnebatu-kaja ta akeita ekafi du Zaingoa'ra.

Ume, gaixo ta zafen Gizarte-Laguntza'rako izango da jaso degun guztia.

Begi-begiko izan ditugu bi eskutitzok eta bialkuntzok.

Cardiff'ko "Ayuda a España,'ko Batzordeak, gaiñera, bertako itxasontzietan onuntz etoftzen diran delegauai Zaingo'ko beaf guztien befi emateko gaztiagatu edo abisatu digute. Berealako batez, beaf dan beste laguntzarekin erantzungo ei-digu.

NERE BORDATXOTIK

BILDUTAKO SORTATXOAK

¡¡ Ori duk erreminta ori !!

Eguzkiaren azpian dan azalik gogofena, "El Liberal,'eko lumakide ori ezpairik gabe. Ofek akatsa bilatuko ez dion kamixa bordaturik ez duk azalduko!

Lendik argia ikusten duten egunkari guziak nazkatuak dauzka, ta orain jaio befi degun "Lan Deya,'ri enbidoka asi etzaio ba?

Garai auetan—ni ez naiz "sozialista" garbi ez omen liteke esan, ori esateak sozialismoaren etsaia dala agertzen omen du-ta".

¡Bejondeikela motel! ¡Edefak eman dizkiguk!

Gizonaren eta efien azkatasun bila goaxela dio safitan; berak, abeftzalea ez dala (ta ala obe), ta abeftzaletasunaren aurka aspaldian ari dan bezela "kristonak" esatea azke, libre, ta guk (sozialistak) ez gerala soil esatea pekatu aundia.

¡A, kompañeo! Toki txafera zatoz "enbidoka".

¡Emen (ordago) entzungo dezu, ordago!

Kontentu ezpazera, lengo bidea libre daukazu...

¿Entzun? ¡Claro, hombre!

AÑANTZ-URTE ONA

Ala esan leike afanea.

Gure itxas ertzetan afaj astun beldurgafiak dabiltz, baña sare onak zabaldu dira, ta guziak bertan "klok" egiten dute. ¡Alpefik duk! Nik beti esaten diat: ¡"Berez beaf duala Bilabona'koa"! ¡¡Berez!!

Gure "¡itxas-ertzañak" mutil onak zeudek afaiotan.

Amaf egunen buruan, ogeitik aurera... pixu aundiko agin zofoketakoak...

Emendik "pasa"
ez duk jolasa!

"Tierra Vasca" begikoa dut eskutan.

"Aitor Ametsagaña,'ren idazki goxoa gogoz irentsi dut.

Rumania'ko Tataresku agintari nagusiaren jokerak ilan bikain ori argitaratzeko gaia eman dio. Jakingari asko axaldu ondoren, azken galdera au egiten du idazleak

¿Sera cierto que la democracia burguesa se sacude de su letargo?

¡Ojala...!

Gauxeak asko aldatu dira egun gutxiren buruan.

Auxoa gaizki ikustearekin gutxi estutzen gera, baña... geu gaizkitzera goazenean... botika bila azkaf.

¿Fascismoa baño gaitz traketsago ta beldurgafiagorik bai ote?

¡Noizpait konturatuko ba'giña...!

¡ELDU LANARI!

"Fascismoa" ufutitik zebilen arte ainbat jaramon ez genefon egiten. Dabilela...!

Afariko atera eldu zaigunean oraaitik... ¡kontuak dituk emen!

Bera nondik nora iloko emen gabiltz geu ilo beafean.

Azkatasunaren edefa orain ausnortzen degu: betiko lotu nairik etsai ankefak datozkigunean...

Berdin gertatu da nekazaritzarekin.

Lufak ematen zuanetik bizi giñanik ere ez giñan konturatzen orain arte. Orain esnatu gera.

Nekazariari lagundu egin beaf zato, onegatik, aregatik, onela, ala... etenik gabeko soka mutura.

¡¡Ofatx!!

Landu gabeko luf zatirik ez da ikusiko aufer antzen Euzkadi'n. "Oietan ereiteko amaf mila tonelada luf-sagaf edo patata erosi dira."

Ezagutu jaunak beingoz. Kendu txapelak nekazarien aufean.

Ereztasunak eman, lagundu... poztu... sendotu.

Amaika aldiz esan degu, ta aurerantzean ez gera aspertuko

Ta... adiskide nekazariak
orain datoz zuen sariak
poztu indartu,
denok alkartu!
eldu lanari
eman janari!
gauf patata,
beafa da-ta...
biaf gari
etzi arto,
ta gerora
beste asko!

Azkatasuna dan edefa. ¡Nekazaritza dan beafa!

DURANGO

EUZKADI EGAZKIÑA. — Egazkin aldeko arpide, idigite dago Batzoki'ko iragartokian. Tamalgafia benetan irureun eta befogeta amaf bazkide daukazan Batzoki batek oraindiño ogei emoilen ixenak bakafik ikustea arpide befoetan. ¿Zer egiten dabe uri onetako abeftzaleak? Ez naz aspertuko erakusten nire asafea eta esaten nire idazkietan, bafiketak ez dirala arikeltak. Egipenak... egipenak...

¿Gura dozu "Euzkadi" egazkiña ikustea? Emon egixu al dozuna aldirik galdu barik. ¿Zenbat? Zure zakelak diñotzuna. Efiel bat al badozu, bera.

"KIZKITZA,,'REN ERIOTZIEA.— Arantzadi'taf Ingartzi, abeftzale eta idazle gorengoa il da. (G. B.). Irakufle. "Kizkitza" ixen ordeagaz amaika idazlan edef idatzi euskun bere bixitzan. Gure abeftak oñafi sendo bat galdu dau. Baña Goiko Jaunak dei egin deutso bere ondora, eta erantzun beaf bere deiari. Berak egin eta berak eroan egiten gaitu erbeste onetatik.

Lefo onen bitaftez, lagun gara atsekabe aztun au eroaten bere sendi onari, eta irakufle etoi bere gogoen alde.

Sarkunde.

Kirolak

UKABILKETA "Euzkadi" egazkin-alde

Gaur arratsaldez Euskalduna'n ukabilketarik ospetsuenak jokatuko dituzte.

EGITARAUA

Lenengo zatia

Pixu-erdikoak, 2 miñutuko 3 ekiñaldi:
IBAÑONDO - KAZORLA
(euzkotaña) (kantauriaña)

Pixu-erdikoak, 2 miñutuko 3 ekiñaldi:
DEL RIO - KIÑON
(euzkotaña) (kantauriaña)



Pixu erdikoak, 2 miñutuko 6 ekiñaldi:
PAKO BUENO - RODOLFO DIAZ
(euzkotaña) (kantauriaña)

Bigañen zatia

Eresbatza

Pixu-erdikoak, 2 miñutuko 5 ekiñaldi:
(Desapiokoa)
ELOI - LORENTE
(bizkaitaña) (gipuzkoaña)

EUZKADI'KO TXAPELKETA NAGUSIA

Iru miñutuko amaŕ ekiñaldi:
ARAMBILET - ISASTI
(bizkaitaña) (gipuzkoaña)

Pixu-erdikoen Euzkadi'ko txapelketa.
Iru miñutuko amaŕ ekiñaldi:
PINEDO - ZUBIAGA
(bizkaitarak)

Biaŕ aŕatsaldez Euzkalduna'n Zubiaga'ren aurka buŕukatuko dan Pinedo ukabilkaria.

NORK IRABAZIKO DU? PINEDO'K? ZUBIAGA'K? — ETA... BESTEAK?

Gauŕ-aŕatsaldez jokatuko diran ukabilketa ziztagaŕiagorik ez degu non-nai ikusiko al izango. Pinedo, Zubiaga, Arambilet, Isasti ta ostontzekoen izenak zizt egin dio gure ukabilketa-ikusmiñari. Orixe bai! Nork esan saŕerak erosteko alako aŕapaladaz ibili bearko genduñik? Eta nork asmatu gauŕ-aŕatsaldez Euskalduna'ko atea -auŕean egin bearko ditugun bultzakadarik?

Zertarako geiago jardun?

Ziuŕ - ziuŕ gaude; gauŕ Euskalduna iñoizko beteen ikusiko degu.

Pelota

ESKUKOAK

Ona emen joan ileko gora-bera. Jokatutakoak, irabazitakoak eta galdutakoak jartzen ditugu eŕezkadan:

Aurrelariak

	J.	I.	G.
Kiŕu'k	6	6	0
Onaindia'k	7	2	5
Ubila I'k	2	0	2
Ubila II'k	7	3	4
Aŕien'k	10	6	4
Etxanitz II'k	1	1	0
Zabaleta'k	2	0	2
Pasaide'k	1	0	1
Korta'k	1	1	0
Motza'k	3	1	2
Sustaŕa'k	1	0	1
Marino'k	2	0	2

Atzelariak

	J.	I.	G.
Malabia'ko Tx.'k.	5	1	4
Urzelai'k	5	4	1
Kortabitarte'k	2	1	1
Ubila III'k	4	2	2
Artamendi'k	4	2	2
Aboitiz'ek	4	1	3
Etxanitz I'k	6	4	2
Juanito'k	7	4	3
Uriarte'k	2	1	1
Afotegi'k	1	1	0

GAUŔ MUNGIA'N

Egitarau auxe iragaŕi dute gaurko: Onaindia-Urzelai, Ubila I-Kortabitarte'ren aurka.

Ondoren, II eta III'gn. Ubila, Aŕien eta Etxanitz'en aurka.

MARKINES ETA AREITIO GARAILE, EUSKALDUNA'N

Jokaldi edeŕa atso-aŕatsaldeko Euskalduna'koa. Markines eta Areitio, Juaristi, Egusola ta Aranburu'ren aurka.

Amaika-ta-erditik ateratzen.

Gogoŕ ekin zioten bai batekoak ta bai bestekoak. Ja jokaldi guztian eraso edeŕa agertu zuan irukoteak. Areitio, baiña, Areitio beti. Azken-aldera sartu zan, sartu, ez zegon alakorik. Bikotea laister arapatu, berdindu, zapaldu ta gaindu zuan. Markines'ek egoki lagundu zion.

Bikotea ogeitamaikagaŕen tantoan klok egindа lotu zan.

* * *

Bigaŕen jokaldia Teodoro-Gurutzeaga ta III-IV Ramos'en lepo izan zan.

Zortzi tantoz, Teodoro'k eta Gurutzeaga'k irabazi zuten.

PALA TA EŔEMONTEKOAI

Atzoko deiari, palako ta eŕemonteko askok erantzun diote (dau danetatik askok, alegia).

Deiaŕi erantzun ez diotenak eman bezate lenbailen euren erantzuna, bear-beaŕekoa da-ta.

Mutrikuarrai biotzez

Gipuzkoa'tik aberŕzaleak
asi dira bialtzen,
euzko-semiak gauza oŕetzaz
asko gera mintzen.

Jaungoikoa'kin une onetan
gaude gu olozten,
beste ludian Berak daki ba
gizon oik zigortzen.

Mutriku'tikan biali dituzte
umo eta emakumeak,
guziak izan bitez
Ongi etoŕiak.

Biotz zabalez aŕtu dituzte
Bizkai'ko uriak,
izan ere alaxen gera
euzkotaŕ semiak.

Eŕia utzita emen gaude gu
bost ilabete onetan,
euzko seme zintzo bezela
baita ere guda oñetan.

Mutriku'ko anai aŕeben maitasuna
degu guk soñetan,
ufuti xamaŕ egon aŕen
gu gaudezen lekutikan.

Negaŕez dagon Ama ku'una
antxen dago laŕi laŕi,
bere semia ikusiteko
ototz egiñaz jauna'ri.

Abeŕia'ri dioten maitasuna gaitik
emen nago ni, gudari,
bai Ama kutuna, ba'
laistef J. U. etxeratuko naiz ni.

Ez egin negaŕ etzaut Ama nai
negaŕ egiñik zu ikusi,
zeure negaŕok paxistei
eraiten dezu baŕe'iŕi.

Euzkotaŕ Ama zerala
beaŕ dezu erakutsi,
izate ori Ama maitea
ez iñoiz ere ba utzi.

Une onetan arkitzen naiz ni
mendiän lagunekin,
guzti guztiok gaudez
osasun onarekin.

Emendik bera jaixteko ere
gauden gogo biziakin,
gure sendietako beŕiak
jakin miñarekin.

Anai-aŕeba mutrikuaŕok
ez eman beŕi txaŕik
gauza oŕekin len ere
gaude oso samindurik.

Kalamua'ko mendi oneton
gera gu arkitzen,
gure sendietako beŕiak
azi ba bialtzen.

Ikusiko degu gurekin nola
zeraten portatzen,
ta ea... nork digun
zeuen idazten.

Ander Deune'n lendaliziko
taldean gaude gu,
izen oŕekin. Kalamua'ra
guri beŕiak bialdu.

Mutrikuaŕok laztan bero bai
guziok aŕtu,
leŕo auekin nere lantxoa
egiten det nik bukatu.

GURUTZ ONDO

Kalamua'tik.

EMAKUME-GIXARTE-LANAK

Txiruai lagundu... Biartsuai sorosi...

Emakumia gixartiaren "Bijotza" da. Ezin ikusi dau emakumiak biaŕtsurik, zoritxardunik eŕukitu barik. Ona emen beste emakume-gixaŕte lan bat. Gexuak, biaŕtsuak nun diran jakin eta ukaŕez ta berba gozoz estiturik laguntasunaz batera, biaŕtsuaren bijotzean jeltzaletasuna ixuri. Onetariko etxietan saŕtzeko biderik eŕazana gorago aitaturiko umien irakaskintza da. Semien bidez lasteŕ saŕtuko gara gurasuen etxian. Uri aundijetan, txaŕkeriz bijotzak usteldutа diran sendijetan saŕtzia, gauza neketsubagua da, baña... maitasunez, iŕi-baŕez, ukaŕez, onegitez atian ots ba-dagigu, idegiko dauskube, bai. Bilbao'ko txiruenen etxerik-etxe, biaŕtasunak bete, gaŕaztasunak gozotu, sikiñak garbitu, oeak egin, osakayak eruan eta bijotz eŕijak osatzen emakume aberats-aundikijak ebiltzala jakitean, itz onixek urten eben neure ao-bijotzetik: "Euzko-emakumiok, Emakume Abeŕtzale-Batza'ko bazkidiok jeltzaletasunez Euzkadi asetzeko egin daikegun l a n i k onuŕatsubena berau da".

Emakume asko, baña, gaxuen etxietara juan, lan egin eta sikiñak garbitzeko gauz ez dira. Eurok be oraitiño gixaŕte-lan onetan lagundu dagie. Zelan? Asmo goitaŕ onetarako diran alkaŕtasunetan ixenak emon eta eurai diruz edo jantzitxubak egiñaz edo zer edo-zelan lagunduta. Alkartasunok Jel Alderdija'ren menpian biaŕ litzakez. Gauŕtxe be eundaka asko dira Euzkadi'n biaŕtasunaren erpepian gosez zoritxaŕ-egia miazkatzen dabenak. Une ugariak... Emakume asko ta beŕogeta amaŕ urtetik goragoko gixonak be ez gitxi. Euzko-emakume bakotxak biaŕtsu baten babes ta sorospenak ixan biaŕ dogu. Bide laua berau Jel-argijari bijotzeko aterik oraindikan idegi ez dautsan euzkotaŕak zabal-zabal egin dagijan.

Onetaŕako euzko-emakume guztijok E. A. B.'ko bazkide egin biaŕ gara; emakume bakotxak egin ezin doguzan gixaŕte-lanak Batz ofixek dagikez: Euzko-Ikastetxeak, lan barik diran euzko-langilen jatekoak, jantzijak, osakayak ta abaŕ...

Eta jakiña, ikusi ez dabe, Jel-azija eraña ta zabaldubaz juango da ta onurarik gitxi baño ez dogula-ta ustez garala, euzko-ama zintzoz Euzkadi asetu dogula ikusiko dogu. Bai ba... emakumiak, ibayak itxasuetara lez, geure Batza abeŕkoia joko dabe eta geure Abeŕija euzko-ama zintzoz, euzkotaŕez, jeltzalez aseko da, ta... irakuŕleme maite-maitja... euzko-emak eruango dabe Euzkadi atseden-seaskara.

Españar gudako izparrak-eta

Asturias'en diarduen gudariak Matallana'ren gañean dagoz. - Besteiro'k eztau nai Madrid'etik alde egiterik. Gudari - etxearen azkundea. - Guda - oñetako izparrak.

ARAGON'GO GUDA-OIÑETAN

Sastago.—Durruti saileko guda-izpaŕak: "Centro guda-oin onetan bake baketan juan da eguna. Suizkilu-bizkoak eta pusilak ixilitzeka jardun dabe Belloque'n, Molino'en eta Aguilar del Ebro'n, baiña arantz-onuntzik gabe.

Paxisten atze-aldean aruntz-onuntz asko ikusi dabe gure suagalariak; iges egin daben gudariak esan dauskuenez paxistak euren txandea egin dabe.

Gudari bi etoŕi yakuz izkilu ta guzti paxistei iges eginda."

Ebro-Egoaldeko guda izpaŕak oneitxek doguz:

"Goizeko 7,30'tan Monte Lobo'ko gure suagalariak Ilobia, Calvario mendia ta Laserna suagatu ebezan. Paxistak 10,5'ko kañoia ipiñi nai izan eben alde oŕetan eta ez yakoen laketu.

Ilobian guda lubenak ebezan paxistok eta guda lubanetatik lasteŕ atera ebezan paxistok gure gudariak. Guda lubanetatik urten eta atzeratxuago dabezan gorde lekuetan saŕtu ziran.

Calvario-mendian areriuak euken kañoi bat apuŕtu eben gure suagalariak; Belchite'runtz eruan eben ta aŕezkero bakean isten dauskue.

Monte Lobo'ko 10,5'ko gure kañoiak dunbadaka-ekiñaldi luzea egin eban paxisten beste kañoi batekin eta areriuei lau il ta zauritu eutsezan gureak.

Sastago, Azailla ta Azuara'n lengo senean."

BARCELONA'KO GUDA IZPAŔAK

Barcelona.—Generalitat'eko lendakariak guda arduradunak agiri auxe emon dautso:

"Areŕioak Be-aldetik dagien jo-aldiak oraindik jaŕaitzen dau baña eŕez atzeratuten da.

Areŕioak izkilu ugari dabil bere jo aldian."

MADRID'TIK ALDENTZERIK EZ DAU NAI BESTEIRO'K

Madrid.—España'ko ordezkari Argentina'n izentatu daben Besteiro jaunarekin baŕiketaldi bat egin dau izpaŕlari batek.

Aldi laŕi oneitan Eŕkal uriburua lagatea, abeŕi-kalte esten ebala esan eban Argentina, be, maite ebanaŕen.

Ordezkari izenteta ofek asko poztu ebala esan eben, baiña Madrid'tik ez urteteko asmo sendoa eukala.

GUDARIEN ETXEA'REN ASIKUNDEA

Madrid. — Gudari Etxea'ren asikundea ospatuteko gauŕ goizean Madrid'en kalerik kale 40'gn. gudaloroa ibili da; gudaloro buru Ortega koronel ordea zan.

Miaja gudalburua'ren aurŕetik igaro ziran gudariok. Txaloak txalo entzun ebezan.

Kañoi. tanke, oñezko gudari, orniketa saileko ta geixo zaiñak be, an ibili ziran.

Gudari Etxea'n Praga koronelak, Ortega koronel ordeak ta gudaloroko beste gudaltsailetako agintari batzuk, be, itz egin eben.

MALAGA'N SUAGA BATEK LEŔ EGIN DAU

Valencia.—Malaga'ko "Radio Requete"k atzo gaberako "duce" jainkotxoaren omenez italiaŕ ereŕ joaldi bat iragaŕi eban. Malaga menderatzen lagundu eutselako eskaŕak emoteko zan kontizu omen ori.

Italiaŕ paxisten ereserkia joko ebela adierazo eben ta ereserkioi asi ebenean suaga edo bonba batek laŕ egin eban eta batzuk il eta 66 zauritu ebazan.

Nork ipiñi dauan ez daki iñork; eundakaz atxilotu dabez.

MATALLANA'GAÑEAN DAGOZ

Gijon.—Gauŕ ezta gudatu. Egun osua tokiak gogoŕtzen igaro da.

La Robla'gañeko mendiak aŕtu ziŕala jakin zanean, Matallana'ko guda-oñak eŕi gudarien mende dagozala esatia aztu egin zan.

Erlei Madaire Retue...!

—¡Kaxio, Peru! Egunon!...

—¡Baŕdin zeuk bere!—erantzun otzan bestaldeko Joshe Maŕi'k oin denpora gitxi, goxalde argitsu baŕen, bere besoak zeru urdiurantza altzenez batera, soñeko na gitasunak. Kenduten zitubela.

—¿Ez dok entzun atzo gabekoa, ala?

—Bai, zer edo zer entzun yoat "tafantaren" bat ipurdiz gora jausi dala edo...

—Bai ta etzuek gaitik egin iñok bere, iru edo lau vuelta emonda gero.

—¡Ain yauk erbie jateko naie ze olan goren bat jasoko zala uste nendun noz edo noz-

Gabez oŕ jatozak, taŕantak, emon aŕgiekaz erbien atzean, ta ¿zelango jautzak eiten yuezak erbi bizkoŕak? Azkenian, "maŕo bat ein de gero, igez eiteko begi argitzuekaz aguŕ baŕegaŕi bat eindе tafanta duneri.

Erbie aŕapatako bide luzea biaŕ dok. ta gure bideak danak dozak biuŕez beteak, alan da ¿ze gatxa dok ain eŕez atrapetear

Iru erbik urten eben diñuenez lengo gau baten eŕiko auzoko batzuri eŕirantza etoŕ zela iluntze ingeruban, ta au jakiñik urten dabe eŕiko gazte batzuk ixil-ixiliк iñoŕi ezen esan barik gure etxe alderantza, erbie jan biaŕ dabela eta...

Begira nengoan. Soloko neure ganetik euren biurkadakaz erbi txikeŕa bizkoŕ-bizkoŕ argien aurŕetik erdi aŕapeurik zijoala, "atzeko daukoa" erakutziaz batera. Salto emen ta biurkadia bestean, ta ie ie ganean jaŕi ziranean, ¡non dozn "beribila" aldatzetik trokaldera!... ¡Ango kristal otza ta zaratea!

Gero "ixil xamar" bat igaro ta azi ziran erdi negaŕez... oyu baten...

¡Ai ene! ta ¡ai ama!, baña neu ikusi nendubenian baŕe gurea bere etoŕyakien, ze ezeben ezer egin zauri batzuk eskubetan baño kristal puntekaz.

¡Ai koitxaduek!, esan nontzien, euren itxurea ikusiez batera.

¿Ze uzte dozue ba gure erbi bizkoŕak, ain kokoluak direzala edo?

Onek saŕi ibilten dozak olan señorituaŕi burieka baña atrapetia ez dok gauze eŕaza.

Baseŕiko "zurtasuna" yeukiek gure ota diko erbiek ta alpeŕik zabiltzie onen atzean gabez.

¡Erbi madarikatue! Beragaitik, ezer bere baliyo ez daben "pizti" txiki onegaitik apuŕtu dok "taŕanta edeŕ" au.

Ikusiko ba leu bere jaubeak...

¿Zer, ez dok zubena ala? Bai zera...

Oin etxauk "beribil" jauberik.

Danak dozak guda goraberatako ta oŕ eŕiko "Komite" edo agiutariak euki daben dok, euren biaŕtasunetarako.

¡Ixilik egon gero!...

Bai, ez euki ardurarik, esanaz batera joan ziran aldatz bera, gaŕien eskubak zituala.

¡Aurten bai eukiek erbiek, bake urte bat beiñipein, guk guda urtea badegu ere...

ERLETXUE



Gipuzkoa aldetik paxistai igesi etoŕi ziran emakumiak, obeto azalduz, auŕ-egiteko aufkitzen ziran anderak etxe onetanixe artu izan diŕa, ta gauŕ aŕte, laureunen bat ume jayo dira berton.



Aranbilet, gauŕ aŕatsaldian Euzkalduna'n Isasti'ren aurka buŕukatuko da.

ERRI-ARTEAN

Italia Inglaterra'ko IZKILLU-ARAZOARI BEGIRA

Italia'k ezin arpegirik emon bestiei.

John Whitaker, Roman dagon izpaŕkariak idazten auxe izpaŕingiratu zuan atso:

"Inglateŕa guda-izkiluz ornitu beaŕ dala-ta, italiaŕ Gobernuak argi ta garbi azaldu du bere naigabea. Len bai Italia'k eta bai Inglateŕa'k izkilu-arazoetan berdin xamaŕ zeuden eta oŕi bide "Giornale d'Italia,'ko iraŕle ta paxistaŕ izpaŕkari dan Virgilio Gayda'k lateŕi azkazale guztien aurka jo ta ke ekin zion.

Auxe esan zuan Gayda'k: 1921'gnez., urte berean Washington'go batzaŕa bide, loftu zuten, loftu, itxas-arazoarekiko batasuna, ta sir Samuel Hoare'k esan-alak esan aŕen, ez dute batasun ori ausiko.

Gudontzi-beŕiak egiten diaŕdute—jaŕaitu zuan Gayda'k—danen aŕte 300.000 tonelada; Inglateŕa'ko Gobernuaren asmoak burutu zituztenean, izketaldi bat egiteko dei egin zion Roosevelt'ek itxas-arduradunai. Gudatean aure-aurетik jokatuko luteken 10 gudontzi egitekoa zan Roosevelt jaunaren asmoa, naiz ta Inglateŕa'k 3 bakaŕik egin.

Ori dala-ta, Gayda'k dionez, ludiak ez du berealakoan ontzat aŕtuko Roosevelt'ek ain argi ta garbi azaldu duan okeŕ-bidea. "Paxistaŕ lateŕiak dute guda-izkilu arazoaren eŕua".

Paxistaŕ alderdiko Arduradunak atso batzaŕa egitekotan ziran, Inglateŕa'k guda-izkiluz ornitzeko asmoa duala-ta.

Gayda'ren esan-mesanak gora-bera, azkazaleak Italia'ren alde zerbait egingo dutenen itxaropena dago, naiz ta Gayda'k azkazaletasuna beti paregaŕi agertu nai izan.

Italia'k, txindi-arazoan egin duan beerakoarekin, guda-izkilu arazoetan ezin eman lezaieke aurpegi Frantze, EE. UU. eta Inglateŕa'ri.

Italia'ri buruz Gayda'k nai dituaniak esango ditu, baiña, Roosevelt'ek Europa'ko arazoak laister atonduko ditualakoan dago diplomatiku batzaŕetako jendea. Inglateŕa'k bezin begi onez ikusiko luke Italia'k ere Roosevelt'en asmoa. Lateŕi-arteko batzaŕ bat egitea Roosevelt'en asmo ori. Italiaŕ paxistaŕak, baiña, Alemania'k dituan beste guda-izkilaren jabe izan nai dutela erantzutzen dute.

Andik eta emendik

España eta Chile atondu dira

Viena'n eztakie ezer erregiatzazkorik -Letonia ta Rusia, adizkide. Paris'eko erakusketa.-Baldwin jaunak lendakaritzea laga?-Belgikarrak España'ra gogozko gudariak bialtzia galerazo dabe.

LETONIA TA RUSIA, ADIZKIDE

Varsovia.—Riga'tik diñuenez Rusia'ko Guda-Ikaskeeta Nagusi'ko buru dan jegorov Riga'n izan da, Letonia'ko Guda-Ikasketa Nagusi'ko buru danak Moscu'ra egin eban ikefaren ordezkoa egiten

PARIS'KO ERAKUSKETA

Paris.—Etxegintza langiliekin Paris'ko Erakusketa etxeak arin egiteko asmoz egin diran artuemonetan auxe erabagi da: Orduko pranko baten jasoko yakoe lan-saria; larunbatez ta igandez ostera orduko pranko bi ta erdi, ta gabez orduko ira pranko t'a erdi ta domeka gabaz bost pranko geituko yakoe.

Ugazabak lafegi etsi dabez lan-sari geitzeok baiña ordaindu beafa izango dabe; geitze ofena, ofeitiño gero Erakusketa. Banakariak ordainduko dautso ugazabei.

Miatz-azkenerako lanok amaitzea beafekoa da ta orixegaitik onartu dabez lan-sari geitzeok.

BALDWIN JAUNAK LENDAKARITZA-LAGA?

Londres.—Ingalatefa'ko politiko-batzokietan Erege-ren bureskunde ostean beriala barik Mayatze'ren azkenetan edo garagafila'ren lenenguetan Bretaña-Bakalderi'o Batzaf Nagusia ospatu ostean lagako ei dau. Baldwin jaunak lendakaritza.

Ingalatefa'ren mapean dagozan Laterjak Batzaf-Nagusi ofetan Baldwin buru ezan daitela nai dabe; Laterí ofein eta Ingalatefa'ren aftuemonak 1931'gn. ezkero Baldwin'ek zuzendu dauz ta Batzaf ofetan aftuemon ofeitxek arakatuko dabez.

ESPAÑA'RATUTEA ERAGOTZI

Bruselas—España'ra gogozko gudariak urtetea galerazo ta gebéntzeko lege-asmuak gertatu dagiezala agindu dautse arazuok yagokuezan ministruei Gobernua'k Lege-asmuori aldundian ontzat aftu beaf da. Frantzia'n onaftu dabezan asmuen antzekoak doguz Belgika'kuok.

IRU URAZPIKO GUDA-ONTZI

Rio Janeiro. — Brasil'entzat Italia'n iru uñazpiko guda-ontzi egingo dira. Atzo izenpetu eben egiuneoi.

ALEMANIA'TIK YATORKUZAN IZPARAK 400.000.000 LIBRA ESTERLINA LATERI ZAINTZERA'KO

Londres.—Baldwin jaunaren itzaldia entzun ostean Ingalatefa'ko Aldundi Nagusia'n bariku goizean onaftu eben 400.000.000 libra esterlina Laterí Zaintzera'ko emote dabezan diru-legea. Lege ofek 329 autarki edo boto izan ebazan alde ta 145 aufka.

EREGE-BURESKUNDE'RA DATORAN BATZORDEA

Londres.—Rusia'tik Erege-Bureskunde jaietara juango dan Batzorde'ko Laterí-arteko Aftuemon Zaingo'ko Arduradun Litvinof, Tuchatchevski mariskala ta Londres'n Ordezkari dan Maiski izango dira.

EZTAKIE EZER

Viena. — Atzefiko izpafingi batzuk Austrian bafiz b.kal edo monarkija softuteko lanetan dabiltzala difarduen afen. Uri onetan ziñezge eta ardura gabe aftuten dira. Jakitun bazkunetan eztakije ezetariko bafirik onetzaz. Bakaf-bakafik Alemania'k bere gogo txafa erakusten dau Austria'ko benetako ibilerakaz.

ESPAÑA TA CHILE ATONDU

Ginebra.—Postasun aundijagaz aftu da España'k eta Chile'k Madrid'eko ordezkaritzako erabagijaz jakitun ixan diranian. Batez be Alvarez del Vayo jaunak Batzafian erabili eban gaya osuan beteten dalako. España'ko Gobernua jarten da efesponsabilidade osuakaz Madrid'etik Alikante'ra "Chile'ko "efefugiau" gustijak eruateko eta militafakaz jagondakuak ixango dirala agindu dau.

Chile'ko Jaurlaritzak 7.000 libra esterlina emon dauz ibilerako ordainketak egiteko.

GUDA IDAZKI IRIKIA

Saseta'tik Amayur eta Loyola-ra

"OTARMI" ETA "IGERRA,,'RI

Aguf abefkideok: Irakufi dizkiat, zuek elkafi egindako idazkiak. Poztutzen nauk, biok, osasun onagaz arkitzea. Ni ongi. Jaun'ri eskefak. "Otafmi". Ik egindako, idazki batean irakufi nian, gafierako gu da ofetan, arkitzen giñan azpeitiafok ere; geure befi emango ote gendu.. Elkafen befi jakiteko alegia. Jakin nai egokia. Ainbat eta ainbat efitaf. bai gabiltzak guda ofetan, elkafegandik ufun. Eta geure gurasp eta senideen befi, jakiterik ez degun ezkero; efitafok, elkafen befi jakin dezagun.

Orain ogeitabi egun, igo geman beriro kian. Toki onetan, orain sein arkitzen geran toki onetatik bertan, igaro genizkian. Woki onetan, orain sein arkitzen dira, jakingo dek noski. Beste iru azpeitiaf bai zeudek. Etxebefia, Azpilaga'taf Joseba eta "Igefa" ire anai. bel betz bat ere, of zeok. Safitan elkaf ikusten diagu. Ordu laurden bateko, bidea bakafik, bai zegok, gugandik. alengana.

Gida ots aundirik, ez dek emen entzuten. Orain amabost egun ordea, kukulduta, aratsalde osoa. igaro genian. Arenoak "kañonasoka" eraso bai ziguteken. Baña egun ura ezkero, eta aufetik ere bai, beste banaka batzuek baño ez zizkiguten jaurti.

Eta, Kompare. Itufalde, Afue, Sarasua eta gañerakoak ¿zer egiten ditek? Basekiat, guda oñetik, xexena ekafi eta Gernika'n, soka mutufa jafi zendutela. Azpeitiafak edonun azpeitiaf. Guda gogofean arkitu afen. ez saizne efiko oiturik astu. ¡Bejondaizuela! Neronek ere, banian asmoa, egun ofetan Gernika'ra zuen artera juatekoa. Baña aurtegoz, alpefik izan dek. Egun edefa eratu zenduten. Kistaf jatofak lez, eleikizun edefagaz jaiari. asiera emanaz, ¿ongi igaro zenduten? Poztuko nindukek ala izatea

"Igefa". Idazten oraindik asmatzen dek ¿ez dekala? Nik, onuzkero astuta edo, egongo itzaala uzte nian moteil. Eskefak beste baten zirikadari; bestela... orain afte bezela, alpef, egingo ukan noski. Baña eskefak zirikatzaleari. Bera izan ez balitz, ez bai genian, ire befirik jakingo. Aufera ere. jafaituko aldek. Orain afteko, alpef, aldiak naikoa dituk, ¿entzun dek?

"Garomendi"k, ¿noiz idatzi dik? Ez EGUNA alde onetara, eldu ezdakoren batean edo. Pozik jakingo nizkikek, bere, diat bere idazkirik irakufi. Balitekek eta Kepa'ren befiak. Iru ilabete bano geiago onetan, ez bai diat. bien befirik. Ik diokenez, befiro idatziko zuala, agindu zuan ezkero, zerbait jakingo diagu. Kepa'k. idatzi ditala, albistea aftu diat, baña neregana, ez dek oraindik iritxi. Zuzenbidea, okef ezafi edo.

Ez diat geiago luzatu nai. Dakizuenez ingi erkasia bai zegok orain. Beraz, bukatzera niak. gorantziak azpeitiaf danari Jel'pean, zuen lagun.

Z.'taf P.

Euzko-gudari talde edefa, bazkal-orduban.

LORETXO
ELEBERRI - EDESTIA

Zarauztaf gudari kementsuari, gelgafi ta maitasunez.

III

Xabier'ek aftu zunean Loretxo'ren idazkia ikusi zun etzuela maite, bafda. idazkian azazol agertzen zan. Nola nai ere itxaropenik etzuen galdu, Madrid'era jutean onenean bereganatuko zuen itxaropena geldítzen zitzaion.

⁂

Loretxo bereala asi zan egunkari, astekari, idazti abefkoi ta abaf irakuftzen. Etzekian etxera nork bialtzen zizkan, baño. pozez irakufzen zitun. Abeftzaletasuna ikasteko zaletasun bizia zeukan eta gurazoen ixilik irakufzen zitun bialtzen zizkaten irakufgaiak.

Sortu zitzaion jakin naia nork bialtzen ote zizkan irakufgaiak, baño ezin zuen jakin. Nabaitua zegon auzoko mutil gaste batek xamurkiro agufzen zuela. Gaste abeftzalea zan, izlari ta idazlea, gurazo beartsuak ba zitun ere. ikasketako zaletasun aundia zeukan eta iritxi zan olea bateko artezkari izatera.

Loretxo'k kontuan eukirik gaste abeftzalearen agufi xamufak eta irakufgai abefkoiak abeftzalcren batek bialtzen zizkala; jafi zitzaion buruan, Yon mutil gaste abeftzalean lanak izango zirala. Oso begikoa zitzaion Loretxo'ri Yon mutil gastea eta asi zan oldozten abeftzaletasunera biurtzeagatik bialtzen ote zizkan irakufgaiak edo ta bi lan batera egiten ari ote zan, abeftzaletu ta biotza bereganatu... Loretxo bere buruakin asi zan maitasun oldozpenak erabiltzen.

Madrid'era juteko egunak uferatzen ari ziran eta gurazoak pozez arkitzen ziran eta Loretxo gaxoa itun...

Loretxo eta gurazoak Madrid'era jun ziran. Madriratuta egun gutxiren buruan Xabier'en sendia ikertzera ere bai. Oso ondo aftu zituzten. Bereala Xabier'i eskeñi zitzaion Madrid'eko jolastokiak erakusten laguntzeko. Egun gutxian ikusi zituzten bertako akeitetxe, dantza areto, antzoki, zine eta kabaret dotorienak. Loretxo itun arkitzen zan. etzizaion atsegin toki aietako bizitza eta nabaitu zuen Xabier'ek adiskidetasun aundiak zeuzkala toki oietan eta lenago adiskide bezela ba'zeukan ere, gofotoa nabaitzen asi zan...

Gurazoei agertu zion etzuela jafaitu nai ebilera oietan, baño, gurazoak zioten uri txikietako bizitza etzutela eramango Madrid'en. Oituko zera emengo bizitzarekin eta gero ez dezu etxera jun naiko...

⁂

Loretxo'ren gurazoak konturatu ziran, etzuela maite Xabier eta min zuten alabarekin gertatzen zitzaiotena,

Egun batean Xabier'ek deitu zion Loretxo'ren sendiari jai aundi bat egin beaf zuela adierazteko. Kotiloe bat antolatu beaf zuen, Madrid'ko aristokrataren kreme berta eramanaz eta beak ere poz pozik ikusiko zitula jai ofetan. Loretxo'ren gurazoak pozez zoratu beaf zuten eta alaba'ri egin zioten jantzi ikuskafia kotiloira juteko. milaka laurleko ordainduaz eta pozik ordaindu ere.

Kotiloia zan egunean goizean goiz Loretxo'k aftu zuen astekari abeftzale bat. Itun arkitzen zan irakufi ondoren. Idazlan bat zekarkin bere biotza lertu ziona... Beretzat idatzia zegon burutapena saftu zitzaion eta bera geina oroitzen zan mutilak idatzia ote zan ustea. Ondoren atgitaltzen det astekariak Loretxo'ren biotz negafa sortu zion idazlana.

JOLAS ONDORENAK

Loretxo'ri:

Neskatil gaste bat zan. Gastea bezin liraña. Liraña bezin polita. Polita bezin zintzoa... mutil gaste afotz baten adiskide ixan afte. Gurazo aundikien alaba. Gurazoak abeftzale arerio pufukatuak. Udaldiak dakafzkin aizeak askotan ondoren onik ez dakaf. Neskatil gaste onen ondoren Madrid'taf mutil gaste dotore gutxi bezelakoa, aundiki aftean oso ezaguna, kondea'ren semea eta neskatilaren gurazoak asetzen zitun gastea.

Lenbizi alabatxoari etzitzaion atsegin mutil gastea, pixkanaka alkafekin Madrid'en bertako bizitzari edef eritzirik neskatil gasteak eman zion emaztegaitzako baietza.

Euzkeldun neskatila ezkondu zan aristokratarekin. Aberatz, konde baten semearekin. ¡Zoriona beretzat eta gurazoentzat!

Ludi onetan ondo bizitzeko ez baita azki aberatza, konde ta aundikia izatea. Biotz garbi eta maitasun egiazko senafak naiz ta txiroa izan. zorionaren lagun aundiak dira.

⁂

Ezkonduta sei ilabete baño lenago azpertu zan aristokrata bere emaztearekin. Senafa etzan beñere ikusten bere emaztearekin... emakumeak geinean berekin ba'zitun ere. Egun batean bere gurazoak egunkari batean irakufi zuen izpaf itun au: "Onelako kondea'ren semea bere emaztea utzi ta beste emakume batekin atzefira iges jun da. Madrid'en ez dago beste izketarik egun auetan."

Zenbat onelako gertatzen da aundiki ondoren dabiltzan emakume euzkeldun aftean? Ikasbide edefa emakume euzkeldunentzat!

Iñufitza.

MENDI LAUTA

JATXI, jagiteko

Irakufi dot, "Montxof", zuk idatzitako, "Gaztia zutunik" deritxon atala. Edefto idatzita dago. Baña, neure ustez. izpafingija artzen dogun danok. berak dakazan izpaf eta idaztijak, nai doguz adifutie.

Au jarizteko, idazlari bakotxak artu biaf dauz, efijak dabiltzazan euzko idazkak. Jatxi egin biaf da efira, ta apufka-apufka, efija jaso, itz garbijak berari irakatsiaz; baña astiro-astiro, itz bakotxa safitan erabilifa

Ez da idatzi biaf jakintsuentzako bakafik, ofela, samufa da aldentzia irakufliak. Bafiz EGUNA'k urteten dau, efijak, euzkotaf danak, jakintsuak eta jakintsuak ez diranak. irakufi dagijen.

Euzkotaf danok, gogoz artzen dogu EGUNA, baña danok ez doguz efez ulertzen idazki danak.

Len diñodan letz, itzak erabili biaf dira, efijak darabiltzazanak edo ordeko egokiak. Ofela euzkera garbi tiafen, itz bat edo beste erabili nai epadogu, ordezkotzat egokiena ta efezagun erabili biaf dogu.

Ofela—LORE—nai ezpadogu erabili, jafi daigun—GARA. BIGI-BIHI'ren ordez.

LORE da efijak erabilifen dabena, baita GARA be, AŕBIGARA, AZAGARA, AŕTOGARA, erderatuta esan nai dan—Tallo florido—ondo datof ordeztzeko.

BIGI-BIHI bafiz ondiño ezta erabili ta ez datof ondo ordeztzeko, erderaz—grano, fruto, semilla, cosecha—esan nai daulako.

¿Zef deritxazu "Montxof"? ¿Jafiko ete dogu GARA?

OKEŃ.



Gudari talde bat.

Gastia zutunik

Ona gaiztuari ez yako eskiñi-biaf onari baño.

Gaiztuari eskiñita, onez iraun biafian. gaiztotu efaz efaz egingo da, eta ona gaiztotuteko eskubiderik iñok ez dau, iñori benezko kalterik egiteko eskubiderik ez dalako.

Ona onari eskiñi biaf ba'yako ba. one na benez eskiñi biafko yako, bestelan kalterik andijena egiteko eskubidia ixango geuke ta, baña onakorik iñun ez iñoz dala gustijok dazagu.

Gixakijaren biztaldirik onena gastarua da, beraz gixakijari kalterik andijena egin gura ezpa yako, gaiztuari ezetara be ezingo yako eskiñi, onari baño

Zugatzak makufzen diran aldera jaurten dira. Eskumaruntz makuftuta ba'dira. ez dira eskeferuntz jausiko eskumaruntz baño. eta eskeferuntz makuftuta diranak jausi be eskeferuntz egingo dira.

Gixakija gastaruan onez zutunik gogoftuta ba diran, naimenez aldakofa dan afen, zaftzarnan be onez zutunik iraungo dau, nekezen baten baño alborantza egin ez da, eta orduantxe be gastaruan ixan eban gogof aldiz sendotuta geroldi onek tinkatuta efazto zutunduko da.

Baña gastaruan onez zutunik barik, gaiztoz makuftuta ta jausita ba dirau, zaftzaruan be gaiztozko makufez makuftuta jausita efaz ixango da. Au dala ta, jakitunen eretxiz, gixakija ez da ameak ontzafiez bijotza ondo ertsiten ez dau tsanian baño zaltzen, eta ameak ertsofatz onegaz semiaren bijotz egalak josteko eskubetan gastarua baño beste arirk ez dau

Gixakija biztaldi osuar on aldez zutunik ixan dadin gertakizun aldija gastarua dan ezkero ixan lekijon onf cnena, beti zutunik ixatia, gertau dagiken ezkero, gixakijaren biztaldirik onena, aldintsubena gastarua da, beraz, gastiak. gastia dalako zutunik ixan biaf dau, eta ez gaiztoz etxurda, edo alperkeriz ezafita.

Ganera, irabazkirik ugarienak eta burestunik aintzatsubenak gixakijak gastaruan beragandu dagikez.

Irabazkijak eta burestunak nekebarikbufuka, gudaka barik, ez dira irabazten, Paul Deunak be dirauskula: "E- dau burestuna biaf dan aruz leyatzen danak baño beragantzen", eta au, berberak argi diñuanez, leyaketan safi ekinda bez. Gastiak leyaketa au. bere burubari on-aldez gogof egin biaf au, gastia dalako ta beste-barik, safi a bixi egin biafa dau.

Gaste zale Urtzi dala agiri esanda dogu. ¿Ludija be Urtz'-nurka gaste zale dala esan biafik ete-dogu. Esan barik be agiri jegija da-ta, edonok dakus.

Zale bijoen aftian alde andija da baña. Urtzi gaste zale, zaftzarua naretsu, kezkabarik igazi ta azkenian zorijontsu ixan dadin. Judija gaste zale. gaste dan-aftian dauan edefa gondu dagiken atsegiña gozau, eta zaftzaruan ez jamonda, bertan bera itxi, eta kezkati igazi eragiñagaz, kezkatijago il dadin laguntzale ixateko.

Zale bijoen aftian, ludijak be ez dautsa iñoz geldi itxiko ta. Judiko gaiztua ezetsi ta Jaunaren ona jafaitzeko eten bako gudaldija ixango dau, beraz, irabazkijak eta burestun aintza ubak norberagantzeko zen batu ala ta geyago erati, beraz, irabazkijak eta b.restuna norberagantzeko aldija aldirik onuratsubena dala, biztaldiko aldirik onena gastarua ixan biaf.

MONTXOŕ

Durango

Yufeta auzo-efiko Ertxadona idegi da. Yufetafak, zoriontsu aufkitzen zare, ainbat ila itxirik egondan txadona idegita ikusteagaz. Otoi biotzez egin, eri ofen zaindari eta gure Abefiarena dan Mikel Deunari, guda amofotua ainbat ariñen amaituteko. Gure bitafez ixan daiten, zuzendu gaitezan bera gana, eta auzpezturik bere aufean, afen egin biotzezko eskariakaz gure efia gaizkatu dagien.

Andra Mari Ertxadona idegiteko asmuak ei-dabiz. Poz aundi bat ixango leiteke gure efitafentzat. Andra Maria, zeruko ama eta uri onetako zaintzale dogun txadona zabalik ikusteagaz. Zuk ama efukiof eta samur ofek donokilik onetsi gaizuz, erbeste onetan naspildurik eta negafezko egunetan aufkitzen garian seme-alaba argalok, gure eskariari ez egixu ez entzun egin. Uste eta itxaropen osoan aldentzen gara Ama Uribafiko, zaindu gaixuzen magalpean. Alan ixan bedi.

GUDEA.—Guda-oñetan dagozan gudari begikoak, taldeka agertzen dira gure artean, ikertzen guraso, anai afeba, zenide eta lagunak. Poz andi batzuk besarkatzen doguz Abefiaren gudari kementsu onek. Irakufle: guda oñetako albistak entzuten agua zabalik egonten gara, gaste onek daukan almen eta gogorapen sendoa ikusirik, aldeztu eta garaitzale urten beaf gariala gure efiak deuken ausi negargafizko onetan. ¡Aufera Abefiaren gudari leyalo! Zuberi begira dago Ama Euzkadi ordu lafi onetan. Zuben agintariari itzala gorde; euzko endea ludia ludi ixan dan lakoa ixan Jaungoikua eta Lagi-Zafa goiburu eta oiturú, ekandu on-zaleak, eta gure izkuntza erabili une eta toki gustietan, Arana eta Goiri'taf Sabin'en eredu ixan gure badozube. Azkenez, urengorarte. Ondo bixi ondo ilteko.



Araba gudaloro'k o mofozko batzuk.

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 45'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 21'gna. igandea | 15 eunen

Etzi 99 urte

Espartero'k gure diputaziñoak españarretan biurtu ebazan.

Gogoratu euzkotarra!

AZKENENGO IZPARRAK

Españar errizalien egazkiñak Toledo'ko izkillu-olea suagatu eben atzo arratsaldian

Ola orretan kalte andiak izan ditue paxistak.-Jarama'n baketsua atzoko eguna. - Paxisten igezi. - Algeciras aldean ontzi atzerritarrak paxisten suagape. - Beste izparrak.

MADRID'EKO IZPAŔAK

Madrid.—Atzo gabeko bederatzi ta erdijetan aldezle batzak emon dabezan izpaŕak onexek dira:

Guadalajara. Gauŕ goixeko lenengo orduetan aurkestu dira arerijuagandik iges egin da, iru eritaŕ eta amabi gudari. Onek morteru bat ekaŕi dabe, baita bost izkilu, izkilu labur bi. izkiluazkaŕ bi eta ainbat eskuzko bonba.

Aŕatsaldian aurkeztu ziran Castejon de Henares'en, paxistan aretetik anka egindako amabi

Tajo Ego aldeko inguruan. Bijan arteko izkilu zunbaketa ezetariko kalterik gabe.

Erkal aldeko egazkiñak suagatu eben Toledo'ko izkilu ola, eta kalte aundijak egin. Somosierra'n izkiluzko zunbaketia eta Guadalajara'n suagada batzuk baña gaŕantzi barik

Jarama'n eta Madrid'en eguna iñoizkorik baketsuen ospatu da. Beste guda oñetan ezer ez.

PAXISTEN EGAZKIŃAK

Gibraltar.—Esan dabenetik Algeciras'ko uretan griego itxas-ontzi bat suagatu zan, eta Cartagena'ko uretan, frances itzas-ontzi bat. Oneri egazkiñetik jaurti jakezan suaga oŕek. Ezin ezagutu ixan diran aŕen, "Junker"-ak diralakua nabaitzen da.

LAS ROSAS'EN AURERA

Madrid. — Gauŕ eguerdian Guda-Zaingoak emon dabezan izpaŕak diñoenez, ogetalau ordu ontako uŕtenengo izpaŕa, eŕi-aldezlien taldiak Cuesta de las Perdices' en emondako eskuzko aupadia ixan da. Las Rosas'en be, aurera dagije eŕi-aldezliak, eta arerijuen indaŕ makala suŕkituten dabe.

PERDIGUERA'N BE BAI

Barcelona. — Gaur-goixian Guda Zaingoak emon dabezan izpaŕak auxe diñue: Ego aldian arerijuak erasoka jaraituten dau areriuak eta mundu guztitik aufera egiteko guraria agertuten dau. Orixe diñue gabeko izpaŕak.

Erdi - ingurutan, Molino'n eta Pina de Belloque'n, eten etengabeko zunbaketa.

Petusos'en eŕi - aldezlien taldiak autsak kendu dautsez arerijuaren talde bateŕi ta ezereztuta itxi. Perdiguera - inguruan, luŕalde batzuk artu dituzte erkaldaŕak eta eurak gogoŕtuten diardue.

Ipar-aldian, Casetas de Quicena eta Quicena'n izkiluzko zunbaketa batzuk.

"Paris Soir" jardunean

ALEMANDARRAK ZUR

BALEARES'EN GUDARIRIK EZ, BAÑA GUDA-JAKINTSUAK BAI

GUDA-ARAZOAK: ALEMANDAŔAK ZUŔ

Paris.—"Paris Soir"en idazlan auxe iraku ŕi dogu; Claud Blanchard'ek idatzia da:

"Baleares'tatik gudariak atara euzanaŕen "guda-arazo-aituak" an laga ebazan. Mallorca begiz jo dabe ta Mallorca'n dabez euren zeregiñak, Mallorca'k ibilpideak, be, ba-dauz ta. Palma'n ifetat-bildukia, be, ipiñi dabe, efegaŕi gordelekuak, be, bai, ta portuan aldakuntza aundiak egin dabez hidro-egazkin eta urpeko guda - ontziak zaintzeko. Egazkin zelaiak egiten aspaldi ziarduen Santinin, Arlan eta Calviran. Ibiza ugartea dago España-uŕerago ta oŕ petrolioi-pozu edo oxiñak eta urpeko guda-ontzien gordelekuak egin izan dabez, kontuzu.

Maŕuekos'tik Marsella'ra duazan salesosketa itxasontzien bideak zaindu daikez Ibiza'tik.

Franco nagusi geratu ba-daike, Nao'ko itxasertz mustuŕa be, guda leku berezi egingo ei leuke ta Mediterraneo'ko sail ori zali bitan bananduko ei litzake.

Beste aldetik Maŕuekos ertzetan alemandaŕa-k dagiezan guda-lekuekin batera Mediterraneo'ko sail ori euron mende izango ei leuke.

Maŕuekos alde oŕetan lan asko egin dabe alemandaŕak, bate: be, Mader egazkin-zelaian. Maŕuekos alemandaŕen mende dagon ala ez ikuster ara juan dan Verlec komandanteari zelaioi ikertzen ez datse laketu.

Tanger-inguruan, Djebel Human, Andjerastaŕen luŕaldean, lengo irailean uŕin-uŕin jaurtzen dabezan kañoiak ipiñi dabez: kañoiok alemandaŕen "Nuremberg" guda-ontzian ekaŕi ebezan. Algeciras'ko Egiunea austea da izan ori.

Ksar Seghir'en ingelatarak daben guda-leku bereziaren ondo-txamaŕean alemandaŕak urpeko guda-ontzien gorde-leku berezia egiteko asmoa aŕtu eben.

Euzkadi'ko txadonak



Lekeitio'ko ertxadon edeŕaren ate nagusia.

Kokotxak xaltxan

Beste bi izpaŕingi-ta egunerokoak biak geigo-aste onetan Bilbao'n irten dira. ¡Ori dek bolara ori!.

Beste batzuk ere, irtentzekoak dirala, belaŕi ertzera oluak datozkigu, aidanian, oitako beŕi bat, gure Jel alderdiko argazkidun aldizkingi edeŕa noski.

Ainbat laxteŕen ongi etoŕia izan dedila; auxe bai oŕenbesteren artian, beaŕ beaŕekoa degula, gai ontakoak, geienak, gofi ez bada, aŕotz usaia dutenak bai dira. Bilbao'n irtentzen diran izpaŕingi guziak erosiko ditun milonariorik, ez da emen izango, bestela, oik danak sakelian eramateko, Koiperen aboa baño askoa aundiago dun sakel bereziaz egindako jantzia bearko luke, nun da besotik zintzilik, izpaŕingi guziak eramateko otartxo bat eramaten ez duen ¡bestela nun eraman!

卐 卐 卐

Gure Jaurlaritza zintzoak, orain ere bide zuzen zuzenetik jo du, Gipuzkoa'tik bialitako emakume eta aur oien arazoaz alegia. Gure txalo bero ta zutzuenak berari.

Ortik joko zuela uste osoa genduen, ta ez gera oker ibili. Ona izatea ongi da beti, bañan "Iñoxente" eguna, ez bada bere buruaren jabe ta esku aftian zer darabilkiten gizon, ta agintari burutzuen eguna.

¿Gure taŕak, bere gogo aurka beren etxeak utzi, ta onera ekaŕi dituztela? ba emengo faxista, ta faxista zale aftian mantendu, "multa" bidez, edo dan bezela, bañan oien bizkaŕetik abek jan jantzi ta abar.

Zer ba, guri airisiak bere ogasun guziak kendu, ta oztu ondoren, ¿emen gosiak ta mixerian utzi? ¡alajainkeza! orla dabiltzala berak, odol kolpien bilduŕ gabe, urdaila ximuŕ ximuŕ eginda, ukalonduak zupatuaz naiba'dute, ¿gogoŕa dala? guda aŕtu gabe pake pakean egotia zuten.

¡Txandaka odolkia mutilak txandaka!

卐 卐 卐

Gure Kolpe, oiainguan "patxa" biurtu zaigu, Malaga'tzaz besterik ez da mintzatez. Aŕaitxuak urian bezin pozes dabil, an bai dira Malaga'ko ardo goxoak ta abaŕ. Len pataŕez ondo bazan ¡orin onek aŕapatuko dituen korapiluak! Beti izan da Malaga, "percebe" eŕia; asko dira "percebe" oitakoak patxa eŕi ortan.

Len "percebe" asko ba ziran, ¡oraingoan etzaiote txaŕa etoŕi! Koipe baño "percebe" aundiagoa, ¡non biiatu! Dioten ez, ango "percebe" guziak, Koipe efege autatu dute ¡je je! Koipe; "percebe,,'ak efege obeagoa autatu ezin! ¡Je, je!!

卐 卐 卐

Lateŕi aŕotzak aŕtutako neuŕjaz, Portugal'ek "xaputz" eginau. ¡Oh terror dos mares! ¡Au ikara! oraintxe galduak gera.

Abek "cara feroche" jartzen ba'dute, ¡aguŕ, ludi ontako pakea!

Aŕo putzak dira beti kaka-gixon abek, txingurien aurean kofika iges juaten diranak izan aŕen, Sanson baño aundiagoak itxuran azaldu beaŕ!

Ez ote dabiltza bek orain ere, pajasuen papera egiten, ontarako iñoŕ ez bezelakoak dira ta, bestek zer agindu, abek egin beaŕ, bestela apaldu gabe oiera. Portugal'k biatza jasotzen duenian, guziak "guardabajo", baita Ipaŕ Amerika'ko Lateŕi Batuak ere.

¡A kakatxantxo alenak, zaan odolekoak izaki!

卐 卐 卐

Eŕi batian re:ioteak falangista aurka, bestean falangistak rekete aurka, auxen da Gipuzkoa'ko eritan dabilkiten gobara.

Guda irabazi ezin dutela ikusiŕik, alkaŕi-efua erantsi nairik dabiltza.

Erantzi edo jantzi beaŕik ez due izango, orain Gipuzkoa'n darabilkien naste ori, Portugal edo Afrika aldian —an bai leku edeŕa abentzat—amaitzen naiko lan ba'dute. Euzkadi'n bizi izateko erarik ez due ¡izango ta. ¡Zuek eman beaŕ dezute aldia ez da makala izango!

ATARENE.

New-York Herald Tribune'tik

Morata'ko burrukaldian egundoko ondamendia izan dabe paxistak

Eta uri ori artuterik lortu ez. - Aravaca inguruko gañak, errizaleak artu.

PAXISTEN AMORUAK GANEZ

Madrid.—Jarama ibayaren alde bietan jarduŕ izan dabe egun osoan buŕuka, ta gogoŕ jarduŕ be. Bakoitzean batek egiten eban bultza. Agiri danez, lengo egoera bardin-bardiñean dagoz; españaŕ erkaltzaleak ez dautse laga paxistei bapere aurerantz egiten. Morata de Tajuña aldean. Oneik bere, ofaitiño, Arganda zubi-inguruko gañak, Vaciamadrid'etik uŕe samar, euron esku ditue.

Trintxeretako gudakerea dala oraingoxe buŕukaldi au esan giñei, ta bai batzuek eta bai besteak, bakoitzaren zuloetan geldi lotu dirala.

Efizalien bultzada, ala obeki esan, efizalien kontraatake dalakoa jasean eta onuratsu egiña izan da, eta ondoren asegaŕirik izan dau.

Tajuña ibaieko guda-esia apurtzerik ez dabe lortuko paxistak, eta Madrid iñorako artuemon eta urtepide barik geldituteko eban aŕiskua uŕuti da oraingoz.

Morata erixka artu nairik paxistak egindako alegin eta erasoetan lagun asko galdu ditue, ziñez. Atake ori, ezerezean lotu yake.

Madrid esi-baŕu artuteko asi ziranetik ona, erasoaldi onetantxe galdu dituela paxistak gizonik geyen, diñoe ikuslari eta aituak. Paxisten esanak gorabera, gaurarte ez da Morata euren eskuetan jausi.

Paxistak lortu ebena auxe izan da, bakaŕik. Jarama ibayaren beste aldean, luban batzuk ipini San Martin de la Vega baño arantzago.

Morata uria erdi biŕinduta dago, ta joan dan astean, egunero, iru ta lau bidaŕ bonbaz josi dabe paxistak, baña ardautegi sakonetan, toki andiak bai-dira, ilikorik gitxi izan da. Uŕiarte ia eldu ziran aŕen paxistak, bi miña bide baño ez, efitaŕak ez eben uria utzi nai izan, eta iñoŕk bere ez dau aldegin.

El Escorial aldean bere, zapaŕada ta ekitaldi baŕiak izan dira, baña buŕukaldi gogoŕik ez, ordea. Ez batak ez besteak, eztabe ardura andirik agertuten auŕerantz egiteko. Len eban guda-garantzirik ez dau oraingoan Escorial alde onek.

Madrid geyago ez ebala bonbardeako, esan eban noizbait Franco'k, baña bere itz ori jan egin dau. Guda-oñak austen jardungo ebela bere guda-indaŕ guztiak esan eban aŕen bart, ilargi zuritan, paxisten egazkiñak Madrid uri ganeŕa suagak jaurtiten ekin eutsen.

Suagok, 19 lagun il zituen eta 95 zauritu.

Alcala, Velazquez eta Nuñez de Balboa kaleak artu eben astiñaldirik gogoŕena, eta Salamanca auzuneak.

Uŕengo, Pacifico kalean, Vallecas zubian eta California auzunean eztanda egin eben. Geroagoan, Pacifico ta Cuatro Caminos langile auzuneak izan ziran paxisten zigorpe, eta batez bere, Democracia kalea.

Bonba jaurtitze onetzaz, Miaja'ri iritzia eskatu eutsen, eta onela erantzun be: "Gudu-oñean idoro dauan esi igaro eziña dala-ta artu dauan amuruak eragin dautse".

Jendea bizi dau lekuan, berariz bota zituen suaga oŕek, ez guda-esletan.

GAUŔ BEGOÑA'N

"KIZKITZA" (G.B.) zanaren gogo-aldez

Gauŕ amaŕetan, Begoña'ko eleizan, Euzko-Abesbatzak abestuta, "Kizkitza" (G. B.) zanaren gogo-aldezko jaupa nagusia ospatuko da.

Erdu guztiok Begoña'ko eleizara ta otoi JEL-aldez atengabean lanean jardun zuanaren gogo-aldez.

Ludian Goikoaren otsein izan zana, egin dezala Berak betiko zorion-jabe zeruan.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ía

41'gn. Alameda de San Mamés txaidian

11447 Urutizkiña

Miaja uste onez

Madrid.—Goxeko lenengo orduetan zuzendu da Miaja gudaburuba bere ordezkariakaz batera, Erkal-aldezko guda oin guztijak ikertuten, bide batez zuzendu daizan ber-berak eguneko gudaketak.

Miaja jauna azkenengo orduetan etoŕi da urita ta oso itxaropentsu etoŕi be.

Zegaitik Inglaterra Gaurko jardunak GUDA-IZKILLU ZALE?

POZA ETA ALAITASUNA PARIS'EN

Paris.—Pozaŕen jaso dute Paris'en Inglateŕaren izkiluz jabetzeko asmoa. Zergati asko bide poztu dira.

Yoachim Von Ribbentrop alemaniaŕ embajadoria Londres'era eldu bezin laister softutako asmoa dalako poztu dira lenengo. Alemania'ren asmoa auntzaren gaba erdiko eztulari bezin jaramon gutxi egitea bait'da ori.

Frantze'ko batzaŕ diplomatikuetan diotenez, Kolonia-arazoa ardura gutxiagokoa izan da; Ribbentrop'ek lenen-lenen naiduana, Francia ta Inglateŕa'ren arteko batasuna austea da. "Bolchebique"-ufka jokatuko duten lateŕi artera saftu nai du Ribbentrop'ek Inglateŕa. Ori ofela egin ezkero Europa'n nai duan guztia egin bait lezake Alemania'k.

Inglateŕa'ren izkiluz arazoari edeŕ iritzi dio gaiñera. Frantze'k. Ofela ez bait'legoke batasun-austerik.

"L'Ouvre" socialisten izpaŕingiak auxe esan zuan atso: "Inglateŕaren guda-izkilu arazo ortan egazkin eta gudontziak saŕtzen dira gehientzu. Rhin-inguruak zaintzeko lagun edeŕa du Inglateŕak Frantze'ko gudari-taldea.

Inglateŕa'k guda-izkiluak nai dituala-ta, ingalandaŕ Gobernuak indaŕkeriari emango dionik ez du iñoŕk uste.

"Le Temps" izpaŕingiak beŕiz besterik uste du. Alemania'ren guda-izkiluz ornitzea, Rhenania artzea, Etiopiaz jabetzea eta Lateŕi-batzaŕen etengabeko okeŕ-bide aurka onez izan izan duala Inglateŕak ezeŕ loftu ta ofexegaitik aŕtu duala aftu duan asmoa. Inglateŕak juzaroan jasan ei zituan bidegabekeriok, baiña, azkenean ere etzita lotu.

Alemania pozik lotu da Inglateŕa'ren asmoari. Ingalandaŕ Gobernuak ez du nai aufera ere mazmulkeritan jaraitu.

Inglateŕak egin dituan ageŕpenak egin ondoren, nai ta naiez, bere buruarekin pixa dala esan beaŕ.